

**LEY 3/1992, DE 1 DE JULIO, DEL DERECHO CIVIL FORAL DEL PAÍS VASCO**

BOPV, nº 153, de 7 de agosto

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La declinación del régimen foral impidió que nuestro ordenamiento civil evolucionase al compás de los grandes avances de la técnica jurídica en los siglos XIX y XX y, por ello, los evidentes valores intrínsecos del Derecho Foral aparecen todavía bajo el ropaje de formulaciones arcaicas que es indispensable actualizar, al modo que el viejo Derecho común español se modernizaba en el Código Civil y las numerosas leyes posteriores. Por supuesto que no bastaba con un trabajo de recopilación o compilación, como pretendió el Congreso de Zaragoza, sino que era obligada la acomodación a la técnica y a las necesidades de una sociedad actual.

La Constitución de 1978 supuso el fin de las limitaciones que el desarrollo de las leyes forales padecía desde los Decretos de Felipe V y, en nuestro caso, desde las guerras carlistas. El artículo 149.1.8 permite que las Comunidades Autónomas puedan conservar, modificar y desarrollar su Derecho Civil.

"Allí donde exista", dice el precepto constitucional. Y existe en el País Vasco, en unos territorios en forma escrita, como en Bizkaia y Álava, y en otros, como Gipuzkoa, en forma consuetudinaria, con unos usos muy similares en muchos aspectos a los del resto del país, que se mantienen pese a las dificultades que plantea un Derecho común inspirado en principios opuestos.

El Código Civil de 1888, al respetar, "por ahora", el régimen de las regiones forales, se refería expresamente tanto al Derecho escrito como al consuetudinario, y el actual Estatuto Vasco, concretando las competencias autonómicas en su artículo 10.5, señala también que la labor de "conservación, modificación y desarrollo" del Derecho civil foral o especial afecta tanto al Derecho escrito como al consuetudinario.

El legislador vasco tiene, por tanto, la tarea de dar forma nueva, adaptar al mundo de hoy, el viejo Derecho Foral, que en Bizkaia y Álava es Derecho escrito y en Gipuzkoa es Derecho consuetudinario, como se ha dicho. Es una labor delicada y que debe desarrollarse con el mayor respeto a la sociedad vasca actual a la que ni se le puede privar de sus instituciones más queridas ni se le deben imponer las que estén carentes de arraigo, porque, si en otras materias la necesidad puede imponer cambios drásticos, el Derecho Civil solamente avanza a través de la aceptación del pueblo y la asimilación general de sus instituciones.

El Parlamento Vasco, que, conforme al artículo 10.5

Itzulpena: Eusko Legebiltzarra

**3/1992 LEGEA, UZTAILAREN 1EKOA, EUSKAL HERRIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKOA**

EHAA, 153 zk. abuztuaren 7koa

**ZIOEN ADIERAZPENA**

Foru-jaurpidea gain-behera joan izanak galerazi egin zion gure araudi zibilari legegintza-teknikak XIX. eta XX. mendeetan egindako aurrerapide sakonekin batera joatea eta, horregatik, Foru-Zuzenbideak berez dituen balio nabarmenak aintzinako molde jantzita agertzen dira oraindik, moldeok eguneratzea beharrezkoa dela. Horrela jokatu zen Espainiako zuzenbide arruntarekin, berori berriztatu eta Kode Zibila eta geroko hainbat lege garatu bait ziren. Ez zen nahikoa, noski, biltze eta metaketa-lan hutsa, Zaragozako Biltzarrak horrela jokatu nahi izan bazuen ere. Ezinbestekoa zen, ordea, gaurregungo gizartearen teknika eta beharrianei egokitzea.

Foru-legeek Felipe V.aren garaietatik, eta gure kasuan karlistadetatik, jasaten zituzten garapen-mugak gainditzea ekarri zuen 1978.eko Konstituzioak, bere 149.1.8 atalak ohartematen duenaren arauera, Autonomi Elakarteek irauterazi, aldatu eta garatu egin bait dezakete eurei dagokien Zuzenbide Zibila.

Konstituzioak berariazko zuzenbide zibilik "egon badagoenenan" dio. Eta Euskal Herrian horrelakorik badago egon. Lurralde batzuetan, Bizkaian eta Araban, idatziz mantentzen da. Beste batzuetan, Gipuzkoan esaterako, ohituraz zainduta eta hainbat alorretan Euskal Herriko gainerantzeko lurraldeetako oso antzerako usadioei jarraituz, usadiook iraun egiten dutela nahiz eta aurkako oinarriak dituen Zuzenbide arruntak horretarako hainbat eragozpen jarri.

1888.eko Kode Zibilak "oraingoz" bere hartan uzten zuen forudun Lurraldeetako jaurpidea eta berariaz aipatzen zuen idatzizko zein ohiturazko Zuzenbidea. Gaurregungo Euskadiko Estatutuak, Autonomi Elkarteari dagozkion aginpideak zehazterakoan, 10.5 atalean adierazten denez, foruzko Zuzenbide zibila edo berariazkoa "iraunerazi, aldatu edo garatzeko" lana berdin burutu daiteke zuzenbide hori idatzizkoa izan zein ohituraz gordetako izan.

Horrela bada, euskal legelariet eraberritu eta gaurko mundura egokitu behar dute Foru-Zuzenbide zaharra, Bizkaian eta Araban idatzita iraun duena eta Gipuzkoan, dagoeneko badakigunez, ohituraz baino gorde ez dena. Kontuz egin beharreko lana da eta gaur eguneko euskal gizartearekiko begirunerik handienarekin burutu beharrezkoa, gizarte hori ezin bait daiteke maiteen dituen erakundeok gabe utzi, ezta berez errotuta ez dituen erakundeok gabe utzi, ezta berez errotuta ez dituen erakundeak hartzera behartu ere, beste alor batzuetan beharriazko aldaketa sakonak egitea bideratzen badu ere, Zuzenbide zibilak ezin duelako aurrera egin herriarrak erakundeok onartu eta orokorrean eurenaganatu gabe.

Eusko Legebiltzarrak, Estatutuaren 10.5. atalak

del Estatuto, tiene libertad para señalar el ámbito de aplicación de las instituciones forales, no puede hacerlo arbitrariamente, y, aunque en el futuro -según los estudios lo aconsejen y la sociedad lo reclame-, podrá hacer modificaciones y seguramente deberá hacerlas, en esta primera elaboración de nuestro Derecho, a la que se llega tras profunda meditación de la ley, se limita a hacer la necesaria adaptación del Derecho a nuestros tiempos, eliminando algunos anacronismos que la Compilación de 1959 aún mantenía y restaurando instituciones muy arraigadas de las que prescindía.

Todo ello sin perjuicio de que se fomenten los estudios que felizmente se han iniciado con fuerza en nuestras Universidades y que permitirán en un futuro próximo nuevas reformas y modificaciones legales, incluso en el ámbito territorial, hasta lograr un Derecho Civil moderno y socialmente avanzado. Los rasgos comunes del Derecho Civil vasco que debemos descubrir irán perfilándose mejor a medida que se profundice en su conocimiento y análisis, sin que, de momento, pueda evitarse la predominante referencia a los sistemas formulados por escrito y a sus ámbitos concretos de aplicación.

#### **METODOLOGÍA**

Por las razones expuestas, el legislador no se considera obligado a respetar la sistemática y orden de la Compilación de 1959 para Bizkaia y Álava. Es un marco demasiado estrecho. Había que incluir instituciones vivas que la Compilación ignoró, como el testamento mancomunado, o dar suficiente desarrollo a otras que, como los pactos sucesorios, solamente aparecen apuntadas y se señalan sin ningún desarrollo en el artículo 11, o como el usufructo poderoso ayalés, en el que la falta de desarrollo ha impedido de hecho su aplicación.

Resultaba asimismo inevitable un Título Preliminar que atendiera especialmente a fijar dos puntos esenciales en materia de fuentes del Derecho: el respeto a la costumbre, tan tradicional en Bizkaia y Ayala, y la salvaguarda de los principios generales del Derecho, principios sin los cuales la norma jurídica queda desprovista de su verdadera vida. El recurso al derecho supletorio, sin atender a los principios inspiradores del Fuero ha permitido a alguna jurisprudencia llegar a conclusiones totalmente alejadas del sentimiento foral.

Como consecuencia, se articula el texto en un Título Preliminar y tres Libros de dimensión desigual, uno para Bizkaia, otro para Álava y el tercero destinado a Gipuzkoa.

#### **DENOMINACIÓN**

La palabra Compilación, sin tradición entre nosotros, no responde al carácter y objetivos de esta ley, que es el de hacer una total puesta al día del Derecho privado vasco. De aquí que la denominemos Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco. Civil porque se limita al Derecho privado; Foral, para distinguirlo del Derecho común, y no porque resucite

ohartemandakoaren arauera, foru-erakundeen ezarpen-esparrua zehazteko askatasuna du, baina ezin du ezarpen-esparrurik besterik gabe aldatu. Nahiz eta etorkizunean, egindako azterketek eta gizarteak aldaketak egitea eskatuta aldatu beharra egon, ziur asko horrelakorik sartu beharra egongo da eta, gure Zuzenbidearen lehen gorpuzketa honetan, legea sakon ausnartuta egindakoan, ez du Zuzenbidea gaurregeneratu besterik egiten, 1959.eko Bildumak oraindino jasotzen zituen gauza zaharkituak ezabatu eta bertan agertzen ez ziran eta berez oso sustraiturik zeuden beste erakunde batzuk agerteraziz.

Edonola ere, guzti hori ez dadila izan eragozpen gure Unibertsitateetan, zorionez, indartsu sortu diren ikerketak ugaritu daitezten, euron bidez eraberritze eta lege-aldaketak eragin bait daitezke, ezarpen-esparruan bertan ere, Zuzenbide Zibil berritua eta gizarte-aldetik aurreratua lortu arte. Bilatu behar ditugun euskal Zuzenbide Zibilaren baterako berezitasunak agertuz joango dira eurotan sakondu eta aztertu ahala, oraingoz idatziz dauden sistemek eta euren ezarpen-esparru zehatzek eragin dezaketen erakarpen-indarra ekidin ezinezkoa delarik.

#### **METODOLOGIA**

Aipatutako arrazoionatik, Bizkaia eta Arabaren kasuan, Bildumaren eraketa eta atal-hurrenkera zaindu beharrik ez du ikusi Legegileak. Esparru estuegia da eta horretara mugatu beharrik ez du. Bildumak aintzakotzat hartu ez zituen erakunde biziak, elkarrekin edo ermandadean egindako testamentua esaterako, sartu beharra zegoen edo aipatu baino egiten ez zituen beste batzuk, 11. atalean agertzen diren oinordetzazko itunak edo Aiarako podere osoko gozamina adibidez, behar bestean garatu beharra zegoen, azken hori garapen-egatik ez delarik benetan ezargarri izan.

Ezinbestekoa zen Atariko Idazpuruua egitea, batez ere Zuzenbidearen iturburuen alorrean bi giltzarri finkatzeko: ohiturea zaintzea, Bizkaian tradizio haundikoa dena, eta gure Zuzenbidearen oinarri orokorren babesa, eurok gabe arau juridikoak bere benetazko bizitasuna galdu egiten bait du, inoiz Foruaren iturburuei jaramonik egin ez eta zuzenbide osogarrira jo izanagatik foru senetik guztiz urrundutako ondorioetara heldu izan dela epaigintza.

Horrela bada, Atariko-Idazpuruak eta luzera ezberdineko hiru Liburuk, lehenengoa Bizkaikoak, bigarrena Arabakoak eta hirugarrena Gipuzkoakoak, osatzen dute testua.

#### **AUKERATUTAKO IZENA**

Bilduma hitza, gure artean tradizioz gabekoa, ez zaio egokitzen legearen helburuari ezta izaerari ere, helburu hori euskal Zuzenbide pribatua goitik-behera eguneratzea da eta. Hortik dator Euskal Herriko foru zibilari buruzko Lege izena eman izana. Zibila Zuzenbide pribatua baino ez duelako hartzen; Foruzkoa Zuzenbide arruntetik bereizteko eta ez

instituciones antiguas; y del País Vasco, por su ámbito de aplicación, aun cuando existan territorios de Derecho común.

## **ANÁLISIS DE LA LEY**

### **LIBRO I**

#### **DERECHO CIVIL FORAL DE BIZKAIA**

El derecho a elaborar su propia legislación lo poseyó Bizkaia en todo tiempo y solamente desapareció con la decadencia del régimen foral. La legislación foral estuvo en vigor en su plenitud hasta la Compilación de 1959, que en muchos aspectos la recortó y limitó. El derecho a recuperarla en su sentido tradicional debemos considerarlo como un "derecho histórico" amparado en la Constitución, un derecho histórico que fue fuertemente afectado por la Compilación realizada en tiempos de dictadura.

Ha parecido necesario acomodar estas disposiciones a nuestro tiempo, eliminando los formalismos anacrónicos y limitando o excluyendo las disposiciones que no se acomodan a la sociedad actual, como algunos aspectos de la troncalidad, e incluso introduciendo, en algún caso, disposiciones imprescindibles para completar el sistema, como ocurre con la ampliación de los derechos del cónyuge viudo, el reconocimiento del derecho de alimentos o la protección de los arrendatarios de fincas rústicas.

No se ha redactado un Código en el sentido de una ley totalizadora de todas las instituciones conocidas en materia civil, sino que la ley se limita a cumplir el mandato constitucional y estatutario que permite la conservación, modificación y desarrollo de nuestro Derecho Foral, y en este caso el vizcaíno. En realidad, iniciamos un proceso que no va a aniquilar las instituciones, sino que las va a mantener vivas y abiertas a los cambios que seguramente va a imponer la necesaria tarea de investigación y la decidida voluntad de progreso que alimenta la sociedad vizcaína.

La existencia de ordenamientos civiles muy diversos en Europa, algunos de ellos más cercanos a nuestras instituciones vizcaínas y vascas, es una realidad enriquecedora, y el hecho de que algunas instituciones se mantengan diferenciadas respecto al Código Civil es una nota de contraste que, en el futuro, permite esperar síntesis más perfectas. Conviene fijar la atención en que las últimas reformas del Código Civil suponen, en muchos casos, una aproximación al Derecho Foral, y es sorprendente que la Ley de 24 de Diciembre de 1981, que aprobó el estatuto de la explotación familiar agraria y de los agricultores jóvenes, recoge instituciones esenciales a la ley vizcaína -como los testamentos mancomunados y "por comisario", los pactos sucesorios, la transmisión íntegra del patrimonio familiar, etc.- y desconocidos en el Código Civil.

### **TÍTULO I**

#### **DEL ÁMBITO DE APLICACIÓN**

aintzinako eta ezarpen-esparruz Euskal Herriko erakundeak berpiztu egiten dituelako, nahiz eta Zuzenbide arrunteko esparruak ere egon.

## **LEGEAREN AZTERKETA**

### **I LIBURUA**

#### **BIZKAIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA**

Bizkaiak betidanik izan du bere legeria egiteko eskubidea eta foru-jaurpidea behera etorri zenean baino ez zuen hori galdu. Foru-legeria indarrean egon zen bere osotasunean 1959. Urteko Bilduma egin zen arte, honek moztu eta murriztu egiten zuela hainbat arlotan. Ohizko foru-legeria berreskuratzeko eskubidea Konstituzioak babesturiko "jatorrizko eskubidetzat" hartu behar dugu, diktadura-garaietan egindako Bilduma horrek sakon erasotako jatorrizko eskubidea.

Erabakiok gaurregunera egokitzea beharrezkotzat jo izan da, aintzinako iharduerak aldenuz eta gaurko gizarteari ondo egokitzen ez zaizkion erabakiak mugatzen edo kenduz, esate baterako tronkalaren gorabehera batzuk, edo inoiz, sistema osatzeko derrigorrezko erabaki batzuk gehituz, adibidez, gizonezko alargunen eskubideak ugaritzeari, mantenu-beharra aitortzeari edo baserrietako errentariak babesteari dagokionean.

Ez da Koderik ere idatzi, arlo zibileko erakunde guztiak batuz egindako legea ez bait da. Legea Konstituzioaren eta Estatutuaren agindua betetzera mugatzen da, eurotan gure Foru-Zuzenbidea iraunerazi, aldatu eta garatzeko ahalmena aitortzen dela, kasu honetan Bizkaikoa. Erakundeak geldierazi beharrean, bizirik eta Bizkaiko gizarteak duen aurrera joateko borondateak eta beharrezko ikerketa-lanak seguru asko eskatuko duten aldaketei zabalik mantenduko dituen bideari lotzen gatazkie Lege honekin.

Europar araupide zibil ezberdin asko egotea, eurentariko batzuk Bizkaiko eta Euskal Herriko erakundeengandik hurbilago daudenak, oso aberasgarria da zalantzarik gabe; eta erakundeotariko batzuk Kode Zibilekin bat egin gabe irautea ezberdintasunak egon daudela erakusten duen adierazgarria da, aurrerantzean sintesi hobeak egiteko bideak zabal ditzakeena. Kode Zibilean egindako azken berrikuntzei buruz adi egotea komeni da, arlo batzutan Foru-Zuzenbidera asko hurbiltzen delako eta harrigarria da Familiaren baserri-ustiakuntza eta baserriar gazteen Estatutua onartu zuen 1981.eko Abenduaren 24eko Legeak Bizkaiko legeko erakunderik garratzitsuenak, Kode Zibilean agertu ere egiten ez zirenak, ia hitzez hitz, bereganatzen zituela ikustea, esate baterako amankomuneko edo "eskuorde-bidezko" testamentuak, oinordetza-itunak, familiaren ondasunak osotasunean eskualdatzea etab.

### **I IDAZPURUA**

#### **EZARPEN-EREMUA**

La determinación del ámbito de aplicación del Derecho Foral en Bizkaia ha sido considerada una cuestión básica para la existencia misma de este Derecho y, al mismo tiempo, un problema de difícil solución, dada la evolución histórica de Villas y Anteiglesias y la dificultad de identificar el territorio de cada una de ellas, sobre todo en el punto crucial de la ley civil aplicable en las Villas, en las que, en la mayor parte de los casos, subsisten las zonas aforadas con las no aforadas.

La Compilación de 1959, con las complicadas reglas que establecen los artículos 2 y 3, contribuyó a una mayor confusión, hasta el punto de que, a partir de ella, se hace difícil precisar si una persona, fuera del núcleo de las Villas, es o no aforada.

Además, el sistema de la Compilación supone una constante variación de los territorios de la zona aforada y la no aforada, por lo que la seguridad jurídica que reclama el artículo 9.3 de la Constitución obliga a redactar reglas más precisas, y con ese criterio, se han redactado los artículos 6, 7 y 8 de esta Ley Foral y la disposición final 1ª, que se apoyan en la autorización legislativa del artículo 10 del Estatuto de Autonomía y pretenden que el territorio aforado quede perfectamente delimitado.

Por otro lado, la Compilación dejó sin valor ni alcance la Concordia de 1630, que autorizaba a las Villas de Bizkaia a reclamar la vigencia de la Ley Foral en su territorio y en virtud de la cual los municipios de Elorrio (1712), Bermeo (1734), Otxandio (1818) y Areatza (1825) se acogieron al Fuero, en todo o en parte. La presente ley restablece la norma concordada en 1630, pero actualizándola (artículo 10).

En cuanto al ámbito personal de vigencia foral, la ley pretende también una mayor seguridad jurídica e incluso una mayor igualdad, evitando algunas injusticias que se deducen de algunas sentencias recientes, que en una interpretación muy restrictiva llegaron a exigir dos y hasta tres puntos de conexión para aplicar la Ley Foral, anomalía totalmente contraria a las normas conflictuales que establece el Título Preliminar del Código Civil, habiéndose llegado a negar los derechos de troncalidad a un hijo porque perdió la vecindad vizcaína. Rectificando esta tendencia, el artículo 16 remite a las disposiciones de carácter general como norma conflictual básica, dejando simplemente a salvo las peculiaridades del estatuto personal de los vizcaínos no aforados.

## TÍTULO II

### DE LA TRONCALIDAD

La más destacada peculiaridad del Derecho Civil de Bizkaia es, sin duda, el profundo arraigo del principio de troncalidad, que se manifiesta tanto en la sucesión testada como en la intestada, en los actos "inter vivos" o "mortis causa", a título oneroso o lucrativo, y con una fuerza muy superior a la que se conoce en todos los países de nuestro entorno, incluidas las regiones forales de la zona pirenaica.

Foru-Zuzenbidea Bizkaian zein eremutan ezarri behar den zehaztea Zuzenbide honen izateari berari dagokion gai oinarrizkotzat hartu da. Baina, aldi berean, arazo horrek konponbide zaila du, Hiriek eta Elizateek historian zehar izan dituzten gora-beherak direla-eta bakoitzaren barrutia bereiztea ez delako bat ere erreza, batez ere, eta hau oso garratzitsua da, Hiriei ezargarri zaien lege zibilari dagokionez, Hiririk gehienetan alde forudunak alde forugabekoekin batera irauten dutelako.

1959. urteko Bildumak nahaste haundiagoa sortu zuen bere 2. eta 3. ataletako arau marapilotsuekin, eta harrez gero zail egiten da, Hiriguneetatik kanpo, nor den foruduna eta nor ez zehaztea.

Gainera, Bildumaren sistemak alde forudunen eta forugabekoen lurraldeak behin eta berriro aldatzen ditu. Hori dela eta, eta Konstituzioaren 9.3. atalak eskatzen duen segurtasun juridikoa aintzakotzat hartuta, arau zehatzagoak egin beharra dago. Erizpide hau erabili da Foru-Lege honen 6, 7 eta 8. atalak eta Azken Erabakietako lehenengoa idaztean, Autonomia-Estatutuaren 10. atalean aitortutako legegintzarako baimenean oinarritzen direla eta forudun lurraldea zein den ondo zehaztuta utzi nahi dutela.

Beste alde batetik, Bildumak balio eta indarrrik gabe utzi zuen 1630. urteko Konkordia. Konkordia horrek Bizkaiko Hiriei baimena ematen zien euren barrutian Foru-Legea indarrean izatea eskatzeko eta horretara jokatu zuten Elorriok (1712), Bermeok (1734), Otxandio (1818) eta Areatzak (1825), Forua osoan edo zati baten aukeratuz. Lege honek berriro jartzen du indarrean 1630. ean konkordatutako araua, baina eguneratuz (10. atala).

Forua nori ezarri dela eta, horretan ere segurtasun juridiko haundiagoa bilatzen du legeak, baita berdintasun haundiagoa ere, oraintsuko epai batzuren bidegabekeriak aldendu nahian. Epaiok, ulertze-modu oso murrizgarriak erabiliaz, Foru-Legea ezartzeko lotura-puntu bi eta inoiz hiru ere eskatzera heldu ziren, Kode Zibilaren Atariko Idazpuruak ezartzen dituen auzietarako arauen aurka eginez. Horretara, inoiz gertatu da seme bati tronkalekotasun-eskubideak ukatzea bizkaitar herritasuna galdu zuelako. 16. atalak, joera hori zuzenduz, izaera orokorreko erabakiak hartzen ditu auzietarako oinarrizko arautzat, forugabeko bizkaitarren estatutuaren berezitasunak besterik gabe salbuetsiz.

## II IDAZPURUA

### TRONKALEKOTASUNA

Bizkaiko Foru-Zuzenbidearen berezitasunik nabarmenena tronkalekotasuna sakon sustraiturik egotea da, horretan ez dago zalantzarik. Hori testamentuzko oinordetzan zein testamentugabekoan ikusten da, "inter vivos" edo "mortis causa" ekintzetan, ordainbidezkoak nahiz dohainezkoak izan. Sustraitze hori gure inguruko herrietan, Auñamendialdeko forudun herrialdeak ere barruan direla, ezagutzen dena baino askoz

Elo obliga a dedicar a esta institución el Título II del Libro I, que define la troncalidad y sus distintos elementos, pero al mismo tiempo hace un esfuerzo para aclarar e incluso limitar sus efectos más radicales, adaptando la institución a las exigencias de la vida actual.

En este sentido, se define en los artículos 17 a 20 el doble componente, personal y real, de la troncalidad. La novedad, en el aspecto personal, es la inclusión de los hijos adoptivos entre los parientes tronqueros, siguiendo el sentido de la Ley del Parlamento Vasco 6/1988, de 18 de Marzo, y en el aspecto real se hace una definición de los bienes raíces, que se acomoda más a la naturaleza de la troncalidad que la enumeración del artículo 334 del Código Civil, utilizada por la Compilación.

En las enajenaciones a título oneroso, cuando tienen como objeto los bienes situados en suelo urbano, el principio de troncalidad puede resultar perturbador y no se estima tan necesario como en las zonas rústicas, en las que la conservación de los caseríos es objetivo fundamental del Fuero. Por esta razón, este Título II se completa con la norma incluida en el artículo 114 (Título V), que exime de los derechos de preferente adquisición y de la saca foral el suelo urbano o urbanizable programado.

### **TÍTULO III DE LAS SUCESIONES**

De las sucesiones se ocupa el Título III, que se divide en cinco Capítulos.

Debe destacarse, en el Capítulo I, la nueva regulación del testamento por comisario o "alkar-poderoso", una de las piezas más importantes de nuestro Derecho Foral, que permite crear un fuerte derecho de viudedad y atender a una adecuada organización de la familia.

En esta materia, la nueva ley se fundamenta en los siguientes principios:

- a) Se sigue la tradición constante del pueblo vizcaíno de consignar, en la casi totalidad de sus capitulaciones matrimoniales, esta institución jurídica de "alkar-poderoso" o poder testatorio.
- b) Se le da a esta institución un contenido actualizado y en consonancia con las situaciones ambientales de la sociedad de hoy.
- c) Se refuerza la posición jurídica del cónyuge comisario, enlazando con la costumbre anterior a la Compilación.
- d) Se mantiene la posibilidad de que la sucesión hereditaria se realice de modo razonable y reflexivo mediante el testamento adecuado al momento oportuno, evitando sucesiones intestadas motivadas muchas veces por falta de previsión.
- e) Se evitan desmembraciones y divisiones irracionales y antieconómicas del patrimonio, reforzando así las modernas disposiciones

Itzulpena: Eusko Legebiltzarra

sakonagoa da.

Hori dela eta, tronkalekotasunaren erakundeak I. Liburuaren II. Idazpurua hartzen du, tronkalekotasuna eta bere osagaiak zehaztuz. Aldi berean, bere eraginik ertzekoenak argitzeko, eta behar bada mugatzeko, ahaleginak egiten dira, erakunde hau gaurregungo bizimoduaren beharrezanez egokituz.

Ildo honetatik, tronkalekotasunaren osagai bikoitza, gizasemeei lotutakoa eta gauzei lotutakoa, azaltzen da 17. ataletik 20.enera. Gizasemeei lotutako osagaia dela eta, berrikuntza bat daukagu, seme-alaba ordeak tronkaleko senideen artean sartzea, Eusko Legebiltzarraren 1988.eko Martxoaren 18ko 6/1988 Legearen arauera. Gauzei lotutako osagaiari buruz, zehaztu egiten dira onibarrak. Zehazketa hori Bilduman erabilitako Kode Zibileko 334. ataleko zerrenda baino hobeto egokitzen zaio tronkalekotasunaren izaerari.

Hirilurretan kokaturiko ondasunen ordainbidezko inorentzeetan tronkalekotasuna nahas-pilotsua izan daiteke eta ez zaio baserrialdeetan bezain beharrezkoa erizten, Foruaren oinarritzko helburua baserriaren iraupena bait da. Hori dela eta, II. Idazpuru hau 114. atalean (V. Idazpurua) ezarritako arauaz osatzen da, lehentasunez eskuratzeko eskubideetatik eta saka-eskubidetik salbuetsi egiten dela hirilur dena edo izatekotan dena.

### **III IDAZPURUA OINORDETZAK**

Oinordetzaz III. Idazpururak dihardu, bost Atalburutan banatzen dela.

Azpimarratzekoa da, lehenengo Atalburuan, eskuordeko bidez eginiko testamentuaren edo "alkar-poderosoaren" arauketa berria, gure Foru-Zuzenbidearen osagarriak garrantzitsuenetarikoa bera. Berorri esker alargunaren eskubideak sendotzea eta familia egokitasunez eratzea bideratzen da.

Arlo horretan, hurrengo hauek dira lege berriaren oinarriak:

- a) Bizkaitarrek ia euren ezkontza-hitzarmen guztietan alkar-poderoso edo testamentua egiteko poderea erabiltzeko izan duten etenik gabeko ohitureari jarraitu egiten zaio.
- b) Erakunde hori eguneratu egiten da, gaurregungo gizartearen beharrezanetara egokituz.
- c) Ezkontide eskuordekoaren egoera juridikoa indartu egiten da, Bilduma aurretiko ohiturarekin lotuz.
- d) Jaraunspenezko oinordetza zentzunez eta ausnartuta egiteko aukerak dirau, behar denean testamentu egokia eginaz, askotan aurrikuspen ezagatik jazotako testamenturik gabeko oinordetzarik izan ez dadin.
- e) Ondarea zentzunik gabe eta ekonomiaren aurka sakabanatzea eta zatitzea eragozten da, azken aldiotan ematen diren administrazio-erabaki berriak

administrativas que se dictan últimamente.

f) Se redacta el contenido de esta institución de modo atractivo, incluso para los no aforados, que tienen a su alcance aplicar el artículo 831 del Código Civil, cuyas sucesivas redacciones modificadas van acercándolo al propio del pueblo de Bizkaia.

Y, consecuentemente, respetándose en toda su amplitud y con las consabidas limitaciones legales la capacidad de testar del causante y la designación de comisario o apoderado, se introducen novedades apoyadas en la costumbre:

a) Se dota al causante de amplia competencia para la designación de comisario o apoderado (artículo 32).

b) Se garantiza el nombramiento, exigiendo la intervención del Notario, bien en testamento, bien en capitulaciones matrimoniales (artículo 33).

c) Se equipara la capacidad para el otorgamiento del comisario y del causante (artículo 34).

d) Se exige desinterés por parte del comisario (artículo 39).

e) Se vela, ahora de modo expreso, por la seguridad jurídica de la herencia yacente, regularizando la representación de la misma (artículo 40).

f) En la defensa de la familia, se regulan por primera vez las obligaciones ya intuitas en la costumbre de alimentos de los menores e incapaces y las relativas a la tutela y curatela (artículos 41 y 42).

g) Se regula el ejercicio del poder para el caso de pluralidad de comisarios (artículo 43).

h) El plazo del ejercicio del poder se regula con la amplitud característica con que siempre se ha utilizado, frente a decisiones autoritarias que constriñen los plazos (artículo 44).

i) Con arreglo a la aplicación constante de esta institución, y evitándose situaciones embarazosas de criterios cerrados de contenido contrario, se regula expresamente la posibilidad del uso en varios actos de "alkar-poderoso" (artículo 45).

j) Los diversos modos de uso del poder se regulan en los artículos 46 y 47, con la peculiaridad de que el comisario cónyuge podrá revocar el uso del poder si éste se hubiera formalizado en su propio testamento.

k) Finalmente, se regula de modo expreso, recogiendo las actuales situaciones jurídicas que pueden darse, la extinción del poder (artículo 48).

En la sección cuarta de este mismo título se regula el testamento mancomunado o de hermandad, que la Compilación ignoró. Esta forma de testamento, que fue mantenida en Navarra y Aragón y que vive vigorosamente en algunos Códigos modernos, es una de las particularidades del Derecho de Bizkaia que las leyes forales proclamaron y que la costumbre ha mantenido sin interrupción. Por añadidura, su conservación es una exigencia del principio de libertad civil.

indartuz.

f) Erakunde hau, Alkarpoderosoa, idazkera erakargarriz hornitzen da, Kode Zibilaren 831. atala erabil dezaketen forugabekoentzat eurentzat ere. Kode horren idazkera aldatuz joan da, bizkaitarrei eurei dagokienera hurbiltzeraino.

Horrela bada, ohituretan oinarritutako berrikuntzak sartzen dira, oinordetzaileak testamentua egiteko gaitasunak eta komisaria edo eskuordekoa izendatzekoak osotasunean dirautela, jakineko lege-mugak kontuan izanda. Hurrengoak dira berrikuntzak:

a) Oinordetzaileari eskuordekoa -komisaria edo podereduna- izendatzeko gaitasun zabala ematen zaio (32. atala).

b) Izendapena bermatu egiten da, testamentuz zein ezkontza-hitzarmenez, horretarako beharrezkoa dela Eskribauak eskuartzea (33. atala).

c) Oinordekoak izendatzeko gaitasuna berdindu egiten da eskuordekoarentzat eta oinordetzailearentzat. (34. atala).

d) Eskuordekoak hori izateagatik irabazirik ez izatea beharrezkoa da (39. atala).

e) Oraingoan berariaz zaintzen da banatugabeko jarauntsiaren segurtasun juridikoa, bere ordezkari nor izango den arautuz (40. atala).

f) Familiaren alde jokatzuz, oraingoan lehenengoz arautzen dira adingabeko edo ezgaiei mantenua eman beharri eta tutoretza edo kuradoretza jartzeari dagozkienak ere, ohituretan hori egiteko joera bazegoen-eta (41 eta 42. atalak).

g) Eskuordekoak bat baino gehiago izan daitezeneko podere-erabilera arautzen da (43. atala).

h) Poderea erabiltzeko epea eskuzabaltasunez hartzen da, beti erabili izan den moduan, epeok mugatuegi bihurtzen dituzten agindukeriazko erabakiak alde batera utziz (44. atala).

i) Berariaz arautzen da alkarpoderosoa ekintza baten baino gehiagotan gauzatzeko ahalmena, erakunde hori etenik gabe erabili ahal izateko eta elkarren aurkako erizpide itxiek eragindako egoera arazotsurik izan ez dadin (45. atala).

j) Poderearen erabilera-moduak 46 eta 47. ataletan arautzen dira, eskuordeko ezkontideak, podere hori bere testamentuan gauzatu bada, poderearen erabilera ezeztatu egin dezakeela.

k) Amaitzeko, berariaz arautzen dira poderea iraungitzeko arrazoiak, gaurregun izan daitezkeen egoera juridikoak aintzakotzat hartuta (48. atala).

Idazpuru berorretako laugarren sailean testamentua elkarrekin edo ermandadean egitea arautzen da, behinolako Bildumak jasotzen ez zuena. Testamentuera hori, Aragoi eta Nafarroan zaindu zena eta gaurregun Kode batzutan indar-indarrean dirauena, Bizkaiko Zuzenbidearen berezitasunetarikoa bat da, foru-legeek aldarrikatu eta ohiturak etenik gabe zaindutakoa. Gainera, horri irauneraztea askatasun zibilaren eskakizuna ere bada.

El mayor inconveniente del testamento mancomunado, según algunos juristas, se refiere a su irrevocabilidad, pero la ley de Bizkaia la limitaba mucho, pues únicamente la mantenía si alguno de los cónyuges otorgantes fallece dentro del año y día siguiente a su otorgamiento (Ley I del Título XXI). Con esta limitación se recoge en la nueva ley esta institución, añadiendo otras precisiones derivadas de la necesidad de recoger los avances introducidos por la doctrina, y, en todo caso, limitando la irrevocabilidad a los actos de disposición sobre bienes comunes que son los que realmente la justifican (artículos 49 a 52).

La sucesión forzosa se regula en el Capítulo II de este Título III. En su regulación se ha hecho un gran esfuerzo por acomodar la sucesión foral a las exigencias de la sociedad actual, y en este sentido es de destacar:

- a) La reducción de la cuota de los ascendientes a la mitad de los bienes del testador en lugar de los cuatro quintos (artículo 56).
- b) El notable incremento de los derechos del cónyuge viudo. El derecho limitadísimo de usufructo que le reconoce la Compilación, se amplía a la mitad de todos los bienes cuando el viudo concurre con ascendientes o descendientes, y a los dos tercios si concurre con colaterales. Sólo en último término el usufructo puede recaer sobre bienes troncales, y en tal caso se admite la posibilidad de su conmutación por un capital en efectivo (artículo 58). Naturalmente, estos derechos se extinguen en los casos de quiebra del matrimonio por nulidad, separación o divorcio.

En el artículo 61 se admite también la posibilidad de legar al cónyuge el usufructo universal de todos los bienes.

- c) Se simplifican las formalidades del apartamiento (art.54).
- d) Se regula el derecho de alimentos de los descendientes (artículo 66), sin hacer distinción entre las clases de filiación, incluyendo, a todos los efectos, los hijos adoptivos (artículo 53).
- e) El artículo 62 cubre el vacío de la Compilación Foral dictando normas para el cálculo de la legítima, y la computación y colación de donaciones.

En la sucesión "ab intestato" (Capítulo III del Título III) la innovación más importante es también la supresión de la distinción entre las diversas clases de hijos (artículo 67).

El derecho de representación, limitado actualmente a la línea descendente, se ha considerado oportuno extenderlo a la línea colateral, pero únicamente en el caso de concurrencia de hermanos con hijos de hermanos (artículo 72). Se sigue así el criterio de la comisión redactora del primer proyecto del apéndice,

Elkarrekin edo ermandadean egindako testamentuaren eragozpenik handienetarikoa, legelari batzuen eritzian, aldatu ezinezkoa izatean datza. Bizkaiko Legeak asko mugatzen zuen aldaezintasun hori, ezkontide testamentu-egileetarikoren bat testamentu hori egin osteko urtebete eta egun bateko epe barruan hilez gero baino ez bait zuen mantentzen (XXI. Idazpuruko I. Legea). Erakunde hori aipatutako muga horrekin jasotzen da legean, adituek ekarritako beste aurrerapen batzuk jaso beharretik eratorritako beste zehaztasun batzuk gehituz, aldatu ezinezkotasuna bienak izandako ondasunenei buruz erabakitzaera mugatuz, ondasunok direlako hori holan izatearen benetazko arrazoia (49. ataletik 52.era).

Derrigorrezko ondorengotza III. Idazpuru horretako II. Atalburuan arautzen da. Berori idazterakoan ahalegin berezia egin da foruzko ondorengotza gaurregungo gizartearen beharriaz egokitzeko, eta alde horretatik hurrengo hauek azpimarra genitzake:

- a) Aurrekoei dagokiena testamentu-egilearen ondasunen erdia izateraino gutxitzen da, bostetik lau izan beharrean (56. atala).
- b) Nabarmen gehitzen dira ezkontide alargunaren eskubideak. Bilduman aitortzen zaion gozamen-eskubide hain murriztu hori handitu egiten da, alarguna ondorengoekin eta aurrekoekin batera badago ondasun guztien erdira helderaino, eta hirutik bira alboko senideekin batera badago. Besterik ezean baino ezin dezake gozamenik izan tronkaleko ondasunetatik, eta holakorik jazoko balitz, onartzen da ondasunok dirutan emandako kapitalaren truke aldatzea ere (58. atala). Edonola ere eskubideok iraungi egiten dira ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzioa dela eta, ezkontzak porrot eginez gero.

61. atalean ondasun guztien gozamena ezkontideari uzteko aukera ere onartzen da.

- c) Oinordekoak baztertzeko egin beharrekoak erreztu egiten dira (54. atala).
- d) Ondorengoan mantenu-eskubidea arautzen da (66. atala), seme-alaba moten arteko bereizkuntzarik egin gabe, seme-alaba ordeak ere horren barruan sartuaz ondorio guztietarako (53. atala).
- e) 62. atalak Foru-Bildumaren hutsunea betetzen du seniparteari dagokion zatia ateratzeko arauak emanaz, baita dohaintzak zenbatgarritzekoak eta jarauntsira itzuli beharreko ondasunak zehaztekoak ere.

Testamenturik gabeko ondorengotzan (III. Idazpuruko III. Atalburua) berrikuntzarik garrantzitsuena seme-alaba moten arteko bereizkuntza kentzea da (67. atala).

Ordezkotza-eskubidea, gaurregun beherantzako belaun-lerroari mugatuta dagoena, alboko belaun-lerrora ere zabaltzeari ondo eritzi zaio, baina neba-arrebak neba-arreben seme-alabekin batera direnean baino ez (72. atala). Horrela jokaturik lehenengo eranskinaren egitasmoa atondu zuen

que invocaba una reiterada práctica consuetudinaria.

A falta de parientes en la línea recta o en la colateral hasta el cuarto grado, la sucesión intestada se defiere a favor de la Diputación Foral correspondiente (artículo 73).

En el Capítulo IV, y bajo el epígrafe "de los pactos sucesorios", se regulan diversas formas de sucesión contractual, de gran arraigo en la vida vizcaína, que solamente aparecen aludidas en el artículo 11 de la Compilación actual, sin hacer ningún desarrollo de esta materia. No solamente la doctrina se muestra cada día más abierta a los pactos sucesorios, sino que el propio Código Civil, en las sucesivas reformas, tiende a suavizar su rígido criterio prohibitivo inicial.

El principio de libertad civil, inspirador de las leyes y costumbres forales, y los antecedentes documentales de Bizkaia, en los que los pactos sucesorios son la forma más frecuente de transmisión del caserío, obligan a su regulación legal, no bastando con la simple indicación que hacía el artículo 11 de la Compilación.

El caso más importante de sucesión pactada es, por supuesto, el que se establece en capítulos matrimoniales, pero también es frecuente en escritura de donación, y así se recoge en el proyecto (artículo 74).

Se han tenido que analizar también los tipos de pacto más importantes (al margen del instrumento en que consten), y por ello se regulan con cierta atención la donación universal con transmisión de bienes de presente o con eficacia "post mortem", así como las donaciones de bienes singulares (artículos 76 a 78).

Resultaba también ineludible hacer referencia en este lugar a la comunidad de vida o asociación familiar que, muy comúnmente, se establece entre donantes y donatarios, el matrimonio joven y el matrimonio viejo, cuando se transmite un caserío u otra explotación rural. Se ha tratado de recoger esta institución atendiendo a los usos vigentes (artículo 82).

Las reservas y reversiones se regulan en el Capítulo V del mismo Título III, bajo el epígrafe de "Disposiciones comunes a las distintas formas de suceder". En primer lugar se recoge la reserva del artículo 811 del Código Civil, pero acomodándola a la aplicación que puede tener en Bizkaia, esto es, limitada a los bienes no troncales (artículo 84).

Los artículos 85, 86 y 87 recogen, con leves modificaciones, la reserva relativa a los bienes ganados durante el matrimonio (artículo 85), la que se refiere a los bienes troncales recibidos del patrimonio del cónyuge premuerto al disolverse la comunicación foral (artículo 86) y la de los bienes donados o dotados para un matrimonio (artículo 87).

Asimismo, se incorpora en el artículo 88 una reserva, paralela a la del artículo 968 del Código Civil, respecto a los bienes no troncales.

batzordearen erizpideari jarraitzen zaio, ohiturak behin eta berriz erakusten zuen hori aintzakotzat hartuta.

Testamenturik gabeko jarauntsietan, zuzeneko edo alboko belaun-lerroan laugarren belaunaldira heldu eta senitartekorik ez badago, dagokien Foru Aldundiaren eskuetara igaroko da (73. atala).

IV. Atalburuan, eta "Oinordetza-Itunak" izenburupean, itun-bidezko oinordetza-era batzuk arautzen dira, bizkaitarren artean ondo sustraituta egon arren gaurrengungo Bilduman 11. atalean aipatu baino egiten ez direnak, arlo horretan gehiago sakondu gabe. Oinordetza-itunok direla-eta adituak gero eta aldekoago agertu ezeze Kode Zibila bera ere, elkarren ostean egindako aldaketetan, hasieran horrelakoak eragozteko zuen erizpide gogorra bigunduz joan da.

Askatasun zibilarekiko begiruneak, foruzko lege eta ohituren eragilea denak, eta Bizkaian agiri-bidez datozkigunetan baserria eskualdatzeko erarik erabiliena oinordetza-itunak izateak, beharrezko egiten dute itunok legez arautzea, Bildumaren 11. atalak egiten zuen aipamen hutsa nahiko ez delarik.

Ezkontza-hitzarmenak oinordetza-itunak garrantzitsuenak dira, jakina, baina dohaintzarako eskriturak ere sarri egiten dira eta horrela jasotzen da egitasmoan (74. atala).

Itun motarik garrantzitsuenak ere aztertu egin behar izan dira (non agertzen diren alde batera utzita) eta horregatik arreta bereziaz arautzen da ondasunak unean bertan zein izendatzailea hil ostean eskualdatuz egindako ondasun guztien dohaintza, baita jakineko ondasunena ere (76. ataletik 78.era).

Baserria edo baserri-ustiakuntzaren bat eskualdatzen denean sarri askotan agertzen da dohaintza-emaile eta hartzaileen arteko lotura, hau da, ezkontide gazte eta ezkontide zaharrak elkarrekin bizi eta osatutako familia-elkartea, eta ezinbestekoa zen hori ere aintzakotzat hartzea. Lege-erakunde hori ere sartu nahi izan da dirauen ohiturari jarraituz (82. atala).

Inorentzako gordetzeak eta itzultzeak III. Idazpuru horren V. Atalburuan arautzen dira "Oinordetzeko erei buruzko baterako erabakiak" izenburupean. Lehenengo eta behin Kode Zibilean, 811. atalean, agertzen den inorentzako gordetzea jasotzen da, baina Bizkaian izan dezakeen erabilerara egokituta, hau da, tronkaleko ez diren ondasunei mugatuta (84. atala).

85, 86 eta 87. ataletan ezkontza-aldian irabazitako ondasunak inorentzako gordetzea (85. atala), foru-komunikazioa desegitean aurrez hildako ezkontidearen ondaretik etorritako tronkaleko ondasunak (86. atala) eta ezkontzagatik edo ezkonsaritzat emandako ondasunak (87. atala) jasotzen dira, aldaketa txikiekin.

Era berean, tronkaleko ez diren ondasunetarako, inorentzako gordetzea sartzen da 88. atalean, Kode Zibileko 968. atalean agertzen denaren parean

El artículo 90 admite la posibilidad de que el reservista pueda designar sucesor entre los reservatarios. Y cierra el capítulo el artículo 92, regulando el derecho de reversión de los bienes donados con carga de alimentos.

#### **TÍTULO IV DEL RÉGIMEN DE BIENES EN EL MATRIMONIO**

A este tema se dedica el Título IV.

Siguiendo el criterio de la Ley del Parlamento Vasco 6/1988, de 18 de marzo, se declara el derecho, muy acorde con la libertad civil que inspira el sistema foral, de pactar el régimen económico matrimonial o modificarlo libremente, antes o después de su celebración (artículo 93).

Se elimina toda discriminación por razón de sexo, incluso cuando se trata de determinar el régimen de bienes en el caso de que los cónyuges tengan vecindad diferente (artículo 94). El criterio de este artículo de la ley coincide con la reciente reforma del Código Civil en materia de vecindad civil.

El régimen legal de comunicación de bienes queda extinguido en los casos de separación, nulidad o divorcio, y también mediante pacto (artículo 95).

Varios preceptos aclaran la distinción entre bienes ganados y bienes procedentes de cada cónyuge y precisan su régimen jurídico (artículos 97 a 102), manteniéndose la exigencia foral del consentimiento conjunto de ambos cónyuges en los actos de disposición (artículo 99).

En los supuestos de disolución del matrimonio por muerte de uno de los cónyuges, la presente ley sigue la norma foral que distingue entre el supuesto de que haya hijos comunes y el de que no los haya.

Habiendo hijos comunes, la comunicación se consolida (artículo 104) y se establece una comunidad hereditaria entre el viudo y los sucesores del premuerto hasta la división y adjudicación de los bienes; pero el cónyuge designado comisario puede adjudicarse la mitad de todos y cada uno de los bienes (artículo 106) y tendrá además el usufructo de todo el caudal (artículo 105).

En los casos en los que el matrimonio se disuelva por sentencia de nulidad, separación o divorcio, o cuando no haya hijos comunes, la comunicación se disuelve por un sistema similar a la sociedad de gananciales (artículo 109), aunque, en el último caso, el viudo conserva algunos derechos de honda raigambre foral (artículo 110).

#### **TÍTULO V DE LOS DERECHOS DE ADQUISICIÓN PREFERENTE**

Este tema merece una atención especial del

joanda.

90. atalaren arauera, gordetzaileak gordetakoaren hartzaileen artean izenda dezake oinordekoa. Atalburua 92. atalean amaitzen da, mantenu beharraz emandako ondasunak itzultzeko eskubidea arautzen dela bertan.

#### **IV IDAZPURUA EZKONTZAREN ONDASUNEN JAURPIDEA**

Horixe da IV. Idazpuruaren gaia.

Eusko Legebiltzarraren 1988.eko martxoaren 18ko 6/1988 Legearen erizpideari jarraituz, ezkontzaren ondasunen jaurpidea, ezkontza aurretik zein ostean, ituntzeko edo berori askatasunez aldatzeko eskubidea aitortzen da, foru-sistemaren eragile den askatasun zibilarekin neurri handi baten bat datorrena (93. atala).

Andrazkoen eta gizonezkoen arteko edozein bazterkeria ezabatu egiten da, ezkontideek herritasun bera ez dutenean ondasunen jaurpidea zehazteko kasuan bertan ere bai (94. atala). Legearen atal hori bat dator Kode Zibilaren oraintsuko aldaketak herritasun zibilaren arloan emandako erizpidearekin.

Foru-komunikazioaren legeko jaurpidea amaitu egiten da ezkontideak banandu zein dibortziatu egiten badira edo ezkontza baliogabekotzat joaz gero, baita itunez erabakiz gero ere (95. atala).

Arauren batzuk bereiztu egiten dituzte irabazpidezko ondasunak eta ezkontide bakoitzak ekarritakoak eta euren lege-jaurpidea zehazten dute (97.etik 102. atalera), ondasunei buruz erabakitzeke ezkontide bien foruaren arauerako oneritzia ezinbestekoa dela (99. atala).

Ezkontza ezkontideren bat hiltzeagatik amaitzen denean seme-alabak bienak izatea edo ez izatea bereizten duen foru-arauari jarraitzen dio lege honek.

Bien seme-alabak egonez gero, finkatu egiten da foru-komunikazioa (104. atala) eta jaraunspenezko erkidego egiten da alargunaren eta hildakoaren seme-alaben artean ondasunak banatu eta esleitu arte; edonola ere eskuordeko izendatutako ezkontideak ondasun guztien erdia esleitzen diezaioke bere buruari (106. atala) eta, horrez gain, ondasuntza guztiaren gozamina ere izango du (105. atala).

Ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzio-epairen bategatik ezkontza amaituz gero edo ezkontide bien seme-alabarik ez bada, foru-komunikazioa ezabatu egiten da horrelakoetarako irabazpidezko jaurpidean erabilitakoaren antzeko sistemari jarraituz (109. atala). Dena dela, azken kasu horretan, foru-tradizioan ondo sustraitutako eskubide batzuk oraindik ere baditu alargunak (110. atala).

#### **V IDAZPURUA LEHENTASUNEZ ESKURATZEKO ESKUBIDEAK**

Legegileak arreta berezia jarri behar du gai honetan,

legislador, pues suele ser uno de los motivos de crítica del sistema foral, ante los abusos que pueden darse cuando se utiliza el derecho de saca con fines de pura especulación. Por esta razón, esta ley se ocupa de restringir en algunos aspectos tales efectos perniciosos, al mismo tiempo que simplifica el ejercicio de los derechos troncales para lograr que se ajusten únicamente a la finalidad foral de mantener el bien troncal en la familia troncal.

Con estos propósitos se establecen innovaciones importantes que afectan, en primer término, a los titulares y con objeto de los derechos de adquisición preferente:

a) En cuanto a los titulares, el artículo 126 extiende el derecho de preferente adquisición a favor del arrendatario cuyo contrato tenga más de cuarenta años de vigencia, con preferencia sobre parientes colaterales.

Una de las más arraigadas costumbres es la que permite al arrendatario disfrutar e incluso transmitir su derecho de arrendamiento, otorgando en algunos casos capitulaciones o testamentos en los que designa sucesor. Este derecho es bien conocido entre los tratadistas de nuestro Derecho consuetudinario, aunque no se haya recogido en la Compilación, pero ya el Congreso de Estudios Vascos de Oñate de 1918 solicitaba que se extendiese al arrendatario, con más de cuarenta años de posesión en el arriendo, el derecho de saca foral. La presente ley atiende a esta demanda, tan acorde con las exigencias sociales de hoy.

b) En cuanto al objeto del derecho de adquisición preferente, el artículo 114 excluye las fincas sitas en suelo urbano o urbanizable programado, con lo que se trata de evitar la causa más importante de posible abuso de este derecho, manteniéndolo vigente en los lugares en que tiene su profundo sentido familiar.

La enajenación de bienes troncales requiere la previa utilización de los llamamientos forales, que, conforme al Fuero, eran el anuncio de la voluntad de enajenar y la oferta de los bienes a los parientes. La Compilación desvirtuó en algún modo esta finalidad exigiendo la notificación del precio y condiciones, lo que, dada la posibilidad de pedir la nulidad de la venta y la adjudicación por el precio de tasación, puede ser un medio de desbaratar una venta ya consensuada y quizá lograda tras fuerte negociación.

La presente ley vuelve al sistema foral. El enajenante anuncia su voluntad de vender y los parientes que acuden al llamamiento se comprometen a comprar por el precio de tasación, si bien, en el caso de que se haya anunciado el precio, podrán aceptarlo (artículo 118). Si nadie concurre al anuncio, el propietario puede vender la finca libremente en el plazo de un año (artículo 120).

Los llamamientos, bajo la fe notarial, se publican en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, pero, dado que el anuncio en la iglesia parroquial puede ser un medio mejor de publicidad, se autoriza al Notario para que los publique también en la iglesia (artículo

foru-sistemak jasaten dituen kritiken arrazoiatariko bat izaten bait da, saka-eskubidea espekulazio hutserako erabiltzean egon daitezkeen gehiegikeriengatik. Horregatik bada, txarrerako eragina duten horrelako batzuk mugatu egiten ditu legeak, eta tronkaleko eskubideak erabiltzea ere erreztu bide batez, tronkaleko ondasunak tronkaleko familian irautea baino izan ez dadin eskubideon foruzko helburu bakarra.

Helburuok kontuan izanda berrikuntza garrantzitsuak egiten dira, lehenengo eta behin lehentasunez eskuratzeko eskubidedunei eta eskubideonpeko ondasunei eraginez:

a) Eskubidedunoi buruz, 126. atalak lehentasunez eskuratzeko eskubidea aitortzen die berrogei urtetik gorako kontratua duten errentariei, alboko belaunlerroko baina lehentasun handiagoa emanez.

Sustraituen dagoen ohituretariko bat errentariak berak gozatzeko daukan eta eskualda ere egin dezakeen errentari-eskubidea da, batzuetan eskubide horren ondorengo nor izango den ezkontza-hitzarmen edo testamentu bidez adieraz dezakeela. Eskubide hori oso ezaguna da gure ohiturazko Zuzenbidea aztertu dutenen artean, Bilduman jaso ez zen arren. 1918.ean Oñatin izandako Eusko Ikaskuntzaren Biltzarrak ere eskatu egin zuen berrogei urtetik gorako kontratua zuten errentariei zabaltzea saka-eskubidea. Lege honek jaso egiten du eskari hori, gaurregungo gizartearen beharrezanekin bat datorrena.

b) Lehentasunez eskuratzeko eskubidepeko ondasunei dagokienean, 114. atalak kanpoan uzten ditu hirilurretan edo hirilur izateko daudenetan kokatutako funtsak, horrela eskubide hori erabiltzean sarrien jazo daitekeen gehiegikeria-arrazoia aldentzen saiatuz, indarrean uzten duela eskubide hori famili izaerarekin sakon lotuta dagoen lekuetan.

Tronkaleko ondasunak inorendu aurretik foru-deiak egin behar izango dira. Foruan esaten zenez, ondasunok inorentzeko asmoa agertzea eta eurok senideei eskeintzea zen deion helburua. Bildumak helburu hori, nolabait, aldatu egin zuen, salneurria eta baldintzak zehaztea eskatuz. Saldu izana balio gabekotzat jotzeko eta balioespenaren arauera esleitzeko aukera zegoenez, behar bada tirabira gogorren poderioz dagoeneko hitzartuta zegoen salmenta hondatu zitekeen.

Lege hau berriro lotzen zaio foru-sistemari. Inorentzaileak bere saltzeko asmoa agertzen du eta dei horri erantzuten dioten senideek balioetsitako salneurrian erosiko dutela agintzen dute. Edonola ere, salneurria iragarrita badago, onartu egin dezakete (118. atala). Deiari inork ez badio erantzuten, jabeak edonori sal diezaioke urtebeteko epe barruan (120. atala).

Deiok, Eskribauak egiaztatuta, Udaletxeko iragarkitokian jarriko dira eta, elizan ere agertzeak zabalkunde hoba dezakeenez, bertan ere jartzeko baimena ematen zaio Eskribauari (116. atala).

116).

El tronquero que quiere adquirir el bien raíz debe prestar una fianza cuya cuantía y efectos se regulan en los artículos 117 y 119.

Cuando la enajenación se realice sin llamamientos, los parientes tronqueros poseen el derecho de saca foral, mediante el cual pueden pedir la nulidad de la venta y que se les adjudique la finca por su justa valoración. La presente ley regula los efectos de este derecho, y en especial, las relaciones entre el enajenante, el tronquero que acude a la saca y el comprador en la venta impugnada (artículo 123). El procedimiento para la acción de nulidad se remite al juicio ordinario declarativo, remisión que autoriza el artículo 10.6 del Estatuto vasco, que permite dictar normas procesales en materia foral.

## TÍTULO VI

### DE LAS SERVIDUMBRES DE PASO

Se redacta este Título dada la omisión en la Compilación de Título dedicado en el Fuero a las prescripciones, omisión que a partir de 1959, y dado que conforme al Código Civil las servidumbres de paso son imprescriptibles (artículo 539), ha permitido plantear numerosos litigios en los que se deniega la servidumbre sobre derechos de paso de uso muy antiguo. El artículo 128 de esta ley recoge de nuevo la adquisición por prescripción, pero alarga el plazo foral de quince años para acomodarlo al de veinte años propio del Código Civil. Al mismo tiempo se dictan otras dos normas, en los artículos 129 y 130, para resolver los más importantes conflictos que son objeto de litigio.

## LIBRO II

### DERECHO CIVIL FORAL DE ÁLAVA

En sintonía con las causas que han provocado esta iniciativa, y con independencia de la incidencia que la alteración del Fuero Civil de Bizkaia tiene en los municipios alaveses de Llodio y Aramaio, las instituciones forales de Álava han trasladado al Parlamento, mediante esta ley, su sensibilidad para la solución de los problemas que ocasiona la actual redacción del Fuero de Ayala.

A este respecto resulta de absoluta actualidad el Fuero de Ayala, que, aun escaso en reglas, pero de suma trascendencia, conecta en su contenido con el más moderno derecho sucesorio. La evolución que éste está experimentando en los foros doctrinales y en las más recientes legislaciones se fundamenta, entre otros aspectos, en la consagración del respeto a la libre voluntad del causante, del que es máximo exponente el Fuero de Ayala, escrito y consuetudinario, al que pueden igualar, pero no superar, otras figuras jurídicas del Derecho Comparado.

En el Fuero, la libre disposición de bienes "inter vivos" o "mortis causa" por cualquier título está sujeta sólo a la ley de apartamiento, no precisando en sí misma de una articulación positiva que la

Onibarra eskuratu nahi dezan tronkalekoak diru-bermea eman beharko du, bere kopurua eta ondorioak 117. eta 119. ataletan zehazten direla.

Inorentzea deirik gabe egiten denean, tronkaleko senideek saka-eskubidea dute, horren bitartez salmenta baliogabekotzat jo eta funtsa bidez kotasunez balioetsita esleitu dakiela eska dezaketela. Lege honek eskubide hori erabiltzeak ekar ditzakeen ondorioak arautzen ditu eta, batez ere, inorentzailea, saka-eskubidea eskatzen duen tronkalekoa eta baliogabekotzat eman den salmentako eroslearen arteko harremanak (123. atala). Baliogabeko aldarrikatzeko ihardunbidea aitormenezko auzibide arruntaren arauera egingo da, euskal Estatutoaren 10.6. atalak foruzko gaietan auzibidezko arauak emateko bideak jarri eta horretarako baimena ematen bait du.

## VI IDAZPURUA

### BIDE-ZORRAK

Iraun-legeei buruz Foruak zuen Idazpurua Bildumak ez zuen jaso eta horregatik idatzi da Idazpuru hau. Ez jasotze horrek, eta Kode Zibilaren arauera erabili izanaren iraupen hutsak bide-zorrik izatea ekartzen ez duenez (539. atala), makina bat auzi eragin du 1959. urtetik aurrera, eurotan aintzinatik erabilitako bideetatik igarotzeko eskubideak ukatu egin direla. Lege honen 128. atalak berriro hartzen du aintzakotzat erabili izanaren iraupenagatikozorra, baina foruaren epea, hamabost urtekoa, luzatu egiten du Kode Zibilaren berezkoa den hogeitau urtekora arte. Aldi berean, beste arau bi ematen dira 129. eta 130. ataletan, auzigai diren arazorik garrantzitsuenei irtenbidea emateko.

## II LIBURUA

### ARABAKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

Aipatu ekimena bultzatu duten arrazoen hari beretik, eta Bizkaiko foru-zuzenbide zibilaren aldakuntzak Arabako Audio eta Aramaio udalerrietan duen eragina gorabehera, Arabako foru-erakundeek Aiarako Foruaren gaur egungo idazkerak sortarazten dituen arazoen konponbiderako sentiberatasuna helarazi diote Eusko Legebiltzarrari lege honen bidez.

Gai honi gagozkio larrik, Aiarako Foruak, arau gutxi badu ere garrantzi handikoak bait dira, berebiziko gaurkotasuna du, oinordetzari buruzko zuzenbide berrienari lotzen zaiolako edukiari dagokionez. Izan ere, zuzenbide-arlo hori jakintsuen artean eta legedi berrienetan jasaten ari den bilakaerak oinordetzaren eragilearen borondatearekiko begirunearen nagusitasuna du oinarri, besteak beste. Aiarako Foru idatzi nahiz ohiturazkoa dugu, hain zuzen, hatsapen horren eredurik behinena, beste zuzenbideetako lege-erakunde zenbait parekatu bai baina gailendu ezin zaiolarik.

Foruaren arabera, ondasunen aukerako banaketak, edozein bidez, intervivos zein mortis causa ekintzaz, bereizketaren legea du muga bakarra eta, berez, arautuko duen lege-arau jakinik ez du behar.

reglamente. Basta la consagración del derecho de libre disposición para que en su ejercicio se produzca la más rica casuística con garantía de licitud. Pero la seguridad jurídica exige el establecimiento de normas generales de interpretación y desarrollo que, sin encorsetar la voluntad del disponente ni sustituirla, permitan racionalmente complementarla.

El tratamiento que se dio en la Compilación del Derecho Civil Foral de Vizcaya y Álava a la libre disposición de bienes ha dado lugar a problemas de índole fundamentalmente práctica que la presente ley trata de superar.

Así, resulta necesario recoger un sistema de fuentes propio que, junto al Derecho escrito, determine la primacía de la costumbre y de los principios generales del derecho que inspiran al Fuero de Ayala según su tradición jurídica, y reconozca el valor de la doctrina jurisprudencial antes de acudir al Derecho común.

Es necesario, también, determinar el ámbito territorial de vigencia, con el reconocimiento de las alteraciones de las demarcaciones municipales ya operadas y la previsión de su incidencia en las que pudieran sobrevenir.

La delimitación del ámbito de vigencia del Fuero, junto a los criterios de territorialidad geográfico-administrativa, se completa con la invocación de la ley personal del disponente, derivada de su vecindad civil.

En cuanto a la facultad de disponer libremente, y en aras de la seguridad jurídica anteriormente invocada, para la superación de los obstáculos que, en la práctica, puedan limitar injustamente ese principio universal de libertad se pretende definir el apartamiento, sus variedades, equivalencias y diferencias con otras figuras jurídicas definitorias de los derechos de los legitimarios, así como la identificación de éstos y la de sus derechos, incluidos los que proceden en caso de preterición.

Dentro del Libro dedicado al contenido del Fuero de Ayala se incorpora, por fin, en el ordenamiento jurídico escrito, el consuetudinario "usufructo poderoso", ya mencionado en la Exposición de Motivos de la Compilación, como una figura nacida al amparo de la libre disposición, cuyo arraigo en la tierra de Ayala resulta fácilmente contrastable pero que hasta la presente ley carecía de regulación positiva o escrita, con las consiguientes dificultades de orden práctico que ello suponía.

Para superar esas dificultades, se incorpora al ordenamiento escrito la figura consuetudinaria adaptada a la realidad social, en la que la voluntad del causante sigue siendo determinante para definir su contenido.

En el Título II del presente Libro II se procede a la integración del Fuero de Bizkaia en el Derecho Civil Foral de Álava para su aplicación, de acuerdo con la tradición jurídica, la Constitución y el Estatuto de Autonomía, en los municipios de Llodio y Aramaio.

### LIBRO III

Itzulpena: Eusko Legebiltzarra

Ondasunak aukeran banatzeko eskubidea finkatzea asko da, bere ezarpenak gertakari-multzo aberats eta joria sortaraz dezan, zilegitasun osoz jantzia. Alabaina, lege-segurtasunak ulerkera- eta garapen-arau orokorrak ezartzea eskatzen du, banatzailearen borondate eta nahia mugatu nahiz ordezkatu gabe, arrazoiz osabetetzeko bideak eman ditzatenak.

Bizkaiko eta Arabako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumak ondasunen aukerako banaketa arautu zuen moduak zenbait arazo sortu du, ihardunean batik bat, lege honek gaintitu nahi lituzkeenak.

Horrela, ezinbesteko gertatzen da zuzenbide-iturburu sistema berezia zehaztea, Zuzenbide idatziarekin batera, Aiarako Forua bere lege-ekanduaren arabera mamitzen duten ohituraren eta zuzenbide-hastapen orokorren lehentasuna finkatu eta Zuzenbide arruntera jo baino lehen epaigintza-erizpideen balioa aitortuko duena.

Beharrezko da, halaber, indar izango duen lurralde-esparrua zehaztea, gertatu diren udalerrri-mugen aldaketak kontutan hartuz eta gerta daitezkeen eragina aurrikusiaz.

Foruaren indar-esparrua mugatzeko, geografia-administraziozko erizpideez gain, banatzailearen beraren legebidearen aipamenaz osatzen da, bere herritartasunaren ondorio dena.

Ondasunak aukeran banatzeko eskubideari gagozkiolarik eta aipatu den lege-segurtasunaren mesedetan, askatasun-erizpide orokor hori praktikan bidegabeki muga dezaketen eragozpenak gaintitze aldera, bereizketa finkatu nahi izan da, eta baita horren aldaera eta seni-partedunen eskubideak zehazten dituzten bestelako eskubideekiko baliokidetasunak eta ezberdintasunak ere eta, halaber, senipartedun horien eta beren eskubideen zehaztapena, bazterte-kasuetan dagozkiekan barne.

Aiarako Foruaren edukari eskainitako Liburuan, Bildumaren Zioen Adierazpenean aipatutako ohiturazko "podere osoko gozamina" idatzizko legebidean jaso da azkenekoz, aukeran banatzeko eskubidearen hegalpean sortutako lege-erakunde bezala. Aiara herrian nabarmenki sustraituta egon arren, lege honetara arte ez zuen idatzizko araubiderik eta horrek zailtasun praktikoak zekarzkiekan.

Eragozpen horiek gaintitze aldera, gizarte-egoerari egokitutako erakunde hori idatzizko lege-araubidean jaso da, edukia zehazteko orduan oinordetzaren eragilearen borondateak erabatekoa izaten jarraitzen duelarik.

II. Liburu honen II. Idazpuruan, Bizkaiko Forua Arabako Foru-Zuzenbide Zibilaren baitan jaso da, bere lege-ekanduaren, Konstituzioaren eta Estatutuaren arabera, Laudio eta Aramaio udalerrietan ezar dadin.

### III LIBURUA

## DERECHO CIVIL FORAL DE GIPUZKOA

Pese a la falta de leyes escritas, la población guipuzcoana mantuvo desde antiguo sus propias instituciones, similares a las de Bizkaia y Álava. Estas instituciones de carácter consuetudinario lograron sobrevivir, frente al acoso del Derecho escrito, con grandes dificultades, especialmente desde el Ordenamiento de Alcalá de 1348. Las Juntas Generales de Gipuzkoa pidieron repetidamente que se ordenara la sucesión de forma similar a la de Bizkaia (desde las Juntas de Segura, 1554), e incluso en el proyecto de arreglo de los Fueros de 1841 la Provincia pidió el reconocimiento de su Derecho Civil secular, siempre sin éxito. En tiempos más recientes la petición se renueva a través de la Sociedad de Estudios Vascos, en 1918 y 1930, sin que sea tampoco atendida.

Pese a todo, y cada vez con mayores dificultades, el pueblo guipuzcoano mantuvo su ordenación consuetudinaria, localizada en las zonas rurales. Esta ordenación, como puso de relieve el gran jurista guipuzcoano don Álvaro Navajas, se centra en materias como la transmisión indivisa de la casa, la reversión troncal, la dote o la comunidad económica familiar.

Sin embargo, existen serias dificultades no solamente para determinar el ámbito de vigencia de esta costumbre, sino también para fijar claramente su contenido, en lo que tiene de común, y especialmente en sus diferencias con el Derecho vizcaíno, navarro o alavés, lo que ha de esclarecerse con estudios similares a los que desde principios de siglo se hicieron sobre Álava y Bizkaia.

Entre tanto, ha parecido prudente no hacer definiciones precisas, y limitar el alcance de esta ley al reconocimiento de la vigencia del Derecho consuetudinario guipuzcoano, reservando su ordenación legal a un tiempo futuro, a la vista de los estudios que deberán promoverse por las instituciones autonómicas y forales.

### Disposición Adicional

Se pretende eliminar toda duda sobre la extensión territorial de la Ley Foral y de la vecindad aforada en Bizkaia, para lo que se prevé la elaboración de unos planos que deberán estar a disposición de cualquier interesado, en los Ayuntamientos de las Villas.

### Disposiciones Transitorias

Las Disposiciones Transitorias pretenden superar las situaciones jurídicas creadas al amparo de la legislación anterior y que resultan afectadas por la nueva que la ley instaure y a la que, en lo factible, han de acomodarse. Por último, dada la trascendencia de la nueva situación jurídica que la ley establece para sus destinatarios, ha parecido oportuno determinar un plazo de tres meses en orden a su entrada en vigor.

## LA LENGUA VASCA Y EL FUERO CIVIL

Cuidado especial pone esta ley en su texto en euskera -que más que una traducción es una

## GIPUZKOAKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

Idatzizko legerik ez bazuten ere, gipuzkoarrek aintzinatik mantendu egin zituzten euren erakundeak, Bizkaikoen eta Arabako en oso antzerakoan zirenak. Erakundeok bizirik irautea lortu zuten idatzizko Zuzenbidearen erasoari gehiago eginez, baina zailtasun haundiekin, batez ere 1348.eko Alcaláko Ordenamenduaz geroztik. Gipuzkoako Batzar Nagusiek behin eta berriz eskatu zuten ondorengotza Bizkaiaiko kasuaren antzera arautzea (1554.eko Segurako Batzarretatik hasita). 1841.eko Foruak egokitzeko egitasmoan ere eskatu zuten Gipuzkoak bere berariazko Zuzenbide Zibila aitortzeko, baina alperrik. Oraitzuz ere berriro eskatu izan da gauza bera Eusko Ikaskuntzak Elkartearen didez, 1918.ean eta 1930.ean, orduan ere jaramonik ez zitzaiola egin.

Nahiz eta arazoak gero eta larriagoak izan, gipuzkoarrek, baserrialdean, mantendu egin zuten, ordea, euren ohitura-araudia. Etxea banandu gabe eskualdatzea, tronkalera itzultzeak, ezkonaria edo familiak osatzen zuen ekonomi batasuna bezalako gaiak batzen dira araudi horretan, Alvaro de Navajas gipuzkoar legegile ospetsuak agertu zuenez.

Edonola ere, zailtasun garrantzitsuak daude ohituraren indar-esparrua zehazteko ezeze, bere edukia argiro finkatzeko ere, Bizkaiko, Nafarroako edo Arabako legeekiko zer den baterakoa eta zer berezia finkatzeko, horretarako Araba eta Bizkaia iri buruz mendearen hasieran egin ziran ikerketen antzerakoak burutu egin beharko direla.

Bitartean, zuzenbidearen jokatzeari ondo erantzuta, ez dira definizio zehatzak egin eta lege hau ez da Gipuzkoako ohiturazko Zuzenbidea egon dagoela aitortzeko haraindi joan, berori legez arautzea gerorako, autonomi mailako eta foru-erakundeek eragin beharko dituzten ikerketen ondorioak aztertzen direnerako utziz.

### Erabaki Gehigarria

Foru-Legearen eta herritasun forudunaren lurralde-zabalkundeari buruzko edozein zalantza alde batera utzi nahi izan da Bizkaian. Horretarako, planoak egitea beharrezkotzat jotzen da, nahi dezan edozeinen esku egongo direnak Hirietako Udaletxeetan.

### Aldibaterako Erabakiak

Aldibaterako Erabakiek aurretiazko legeriaren menpean sortu eta lege honek ezarritako legeria berriaren eraginez aldatutako egoerak gainditu nahi dituzte, ahal den neurrian legeria berri honetara egokitu behar direlako. Azkenik, lege honen eragina izango dutenen lege-egoera berria horren garrantzitsua denez, indarrean jartzeko hiru hilabeteko epea ematea egokitzat jo da.

## EUSKARA ETA FORU ZIBILA

Aparteko ahalegina egin da lege honen euskarari dagokionez, itzulpena izan beharrean benetan

"versión" auténtica-, que quiere proporcionar al euskera un espacio jurídico propio en el campo del Derecho privado foral. El criterio que se sigue para conseguirlo es el de recoger, junto a términos acuñados en el habla popular en estas materias ("alkar-poderoso", "bide-zorrak"), los que tienen ya un precedente ("hil-buruko"), y combinarlos con los más recientes que la práctica legislativa está proporcionando al euskera, todo ello con el objeto de lograr una perfección y coherencia propias en el texto.

Por otra parte, para obtener una conexión entre euskera y Derecho Foral, se les reconoce a quienes están bajo el ámbito de aplicación personal de esta ley el derecho a formalizar en euskera los actos y contratos de este Fuero Civil, regulando algunas de las situaciones que ello puede crear (artículo 15). Todo ello, sin duda, supone un paso previo importante para la normalización del euskera en el campo del Derecho foral privado, ya que por primera vez en la historia (con la excepción de la ley de marzo de 1988) se reúnen en un texto dos de los elementos característicos del País Vasco: su lengua y su Derecho privado.

## **LEY DEL DERECHO CIVIL FORAL DEL PAÍS VASCO**

### **TÍTULO PRELIMINAR**

#### **DE LAS FUENTES DEL DERECHO FORAL**

##### **Artículo 1**

1.- Constituyen el Derecho Civil Foral de los Territorios Históricos del País Vasco las disposiciones de esta ley, la costumbre y los principios generales del derecho que lo inspiran, de acuerdo con su tradición.

2.- La costumbre que no sea notoria deberá ser probada.

##### **Artículo 2**

La jurisprudencia complementará el Derecho Civil Foral con la doctrina reiterada que establezca la Sala de lo Civil del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco al interpretar y aplicar aquél.

##### **Artículo 3**

1.- En defecto de norma foral aplicable regirá como supletorio el Código Civil y demás disposiciones de carácter general.

2.- La aplicación del Derecho supletorio deberá acomodarse a los principios generales del Derecho Civil Foral.

##### **Artículo 4**

De acuerdo con el principio de libertad civil, tradicional en el Derecho Foral vasco, las leyes se presumen dispositivas, y la renuncia a los derechos de ellas derivados será válida en tanto no contraríen el interés o el orden público, ni perjudiquen a tercero.

## **LIBRO I**

### **DEL FUERO CIVIL DE BIZKAIA**

#### **TÍTULO I**

Itzulpena: Eusko Legebiltzarra

"euskarazkoa" izan dadin, Foru-Zuzenbide pribatuan euskarari bere legebidezko eremua eman nahi izan zaiola. Horretarako erabilitako erizpidea hauxe izan da: arlo honetan herri-hizkeran erabili izan diren hitzak ("alkar-poderoso", "bide-zorrak") eta aurretik datozenak ("hil-burukoa") jaso eta gaurregun euskarak legegintza-arloan izandako harremanen eraginez sortutako esamoldeekin batera erabiltzea, testuan berezko barne-egokitasuna eta borobiltasuna lortzeko asmoz.

Beste alde batetik, euskararen eta Foru-Zuzenbidearen arteko lotura lortzeko, lege honen eraginpekoak izan daitezkeenei Foru Zibil honetako ekintzak eta hitzarmenak euskaraz egiteko eskubidea aitortzen zaie, horren ondorenez sor litezkeen egoerak arautuz (15. atala). Foru-zuzenbide pribatuaren eremuan euskararen normalkuntzarako urrats garrantzitsua ematea ekarriko du guzti horrek, horretan ez dago zalantzarik, lehenengoz elkartzen bait dira testu berean (1988.eko martxoko legea salbuetsita) Euskal Herriaren berezitasunetako bi: bere hizkuntza eta bere Zuzenbide pribatua.

## **EUSKAL HERRIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO LEGEA**

### **ATARIKO IDAZPURUA**

#### **FORU-ZUZENBIDEAREN ITURBURUAK**

##### **Lehenengo Atala**

1.- Lege honetako aginduek, ohiturak eta bere tradizioaren arauera mamitzen duten zuzenbide-oinarri orokorrek osatzen dute Euskal Herriko Lurraldeen Foru-Zuzenbide Zibila.

2.- Nabarmena ez den ohitura frogatu egin beharko da.

##### **2. Atala**

Epaigintzak osatuko du Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila, berori ulertu eta ezartzerakoan Euskadiko Zuzentza Auzitegi Nagusiak eman ditzan jarraituzko erizpideekin.

##### **3. Atala**

1.- Foru-arau ezargarririk ez balego, Kode Zibila eta gainerantzeko ezarpen orokorreko erabakiak ezarriko lirateke zuzenbide osagarri bezala.

2.- Zuzenbide osagarriaren ezarpena Foru-Zuzenbide Zibilaren oinarriei egokitu beharko zaie.

##### **4. Atala**

Euskal Herriko Foru-Zuzenbidean tradiziozko den askatasun zibilaren oinarriaren arauera, legeak esku-emaile direla jotzen da eta eurotatik datozen eskubideei uko egitea baliozkoa izango da, beti ere herriaren onaren zein gizarte-erabidearen aurkakoa ez bada eta beste inori kalterik ez badio egiten.

## **I LIBURUA**

### **BIZKAIKO FORU-ZIBILA**

#### **I IDAZPURUA**

## DE LA APLICACIÓN DE LAS NORMAS FORALES

### CAPÍTULO I

#### ÁMBITO DE APLICACIÓN

#### SECCIÓN I

#### ÁMBITO TERRITORIAL

##### Artículo 5

Este Fuero, como legislación civil propia del Territorio Histórico de Bizkaia, rige en toda su extensión en el Infanzonado o Tierra Llana.

##### Artículo 6

Con la denominación de Infanzonado o Tierra Llana se designa a todo el Territorio Histórico de Bizkaia, con excepción de la parte no aforada de las Villas de Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete y Plentzia, de la ciudad de Orduña y el actual término municipal de Bilbao.

El territorio exceptuado se regirá por la legislación civil general, salvo en cuanto sea aplicable el presente Fuero.

##### Artículo 7

El territorio no aforado, al que se refiere el artículo anterior, estará integrado por el perímetro actual del respectivo núcleo urbano originario y el suelo contiguo al mismo que esté calificado como "urbano" en el planeamiento vigente a la entrada en vigor de este Fuero.

##### Artículo 8

Las modificaciones posteriores en el planeamiento urbanístico no alterarán la extensión del territorio no aforado.

##### Artículo 9

Las modificaciones administrativas en los límites de los términos municipales de Bizkaia no alterarán el Derecho Civil aplicable a los territorios afectados.

La desanexión de una antigua Anteiglesia de la Villa en la que ha estado integrada, le hará recobrar automáticamente su primitiva condición.

##### Artículo 10

1.- Los municipios en los que rige la legislación civil general podrán optar por la aplicación de este Fuero Civil en todo su término, en virtud de la Concordia de 1630 y de conformidad a lo establecido en la disposición adicional primera de la Constitución y el artículo 10.5 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, cumpliendo los siguientes requisitos:

- Acuerdo de la Corporación adoptado por mayoría simple.
- Audiencia de las Juntas Generales de Bizkaia.
- Aprobación de los vecinos, por mayoría simple de los votos válidamente emitidos, mediante consulta convocada por el Ayuntamiento.
- Aprobación por ley del Parlamento Vasco.

2.- La iniciativa, en caso de no prosperar, sólo podrá reiterarse transcurridos cinco años.

Itzulpena: Eusko Legebiltzarra

## FORU-ARAUEN EZARPENAZ

### I ATALBURUA

#### EZARPEN-EREMUA

#### I SAILA

#### LURRALDE-EREMUA

##### 5. Atala

Foru honek, Bizkaiko Lurraldeko berezko legeria zibila denez, bere osotasunean izango du indarra Lur Lauan.

##### 6. Atala

Lur Laua deritzo Bizkaiko Lurralde osoari, Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete eta Plentzia hirietako eta Orduña ziutateko alde forugabekoa eta Bilboko gaurregungo udal mugarte osoa kanpoan utzita.

Kanpoan utzitako lurraldean legeria zibil orokorra izango da ezargarri, Foru hau ezargarri den guztietan izan ezik.

##### 7. Atala

Aurreko atalean aipatutako lurralde forugabekoa hiri bakoitzaren jatorrizko hirigunearen gaurregungo lurrak eta Foru hau indarrean sar dadinean indarreko hirigintza-planen arauera "hirilur" bezala sailkatuta egon daitezen bere albokoek osatuko dute.

##### 8. Atala

Hirigintza-planen osteragoko aldaketek ez dute aldaeraziko lurralde forugabekoaren luze-zabalera.

##### 9. Atala

Administrazioak egindako Bizkaiko udalen muga-aldaketek ez dute aldaeraziko lurraldeotan ezarri beharreko Zuzenbide Zibila.

Hiriren bati erantsirik dagoen aintzina Elizate izandakoren bat Hiri horretatik bananduko balitz, berez eta besterik gabe berreskuratuko luke zeukan jatorrizko elizate-izaera.

##### 10. Atala

1.- Legeria zibil orokorra ezargarri duten udalerriek Foru zibil hau euren lurralde guztian ezar dadin aukera egin ahal izango dute, 1630.eko Konkordiaren indarrez eta Konstituzioaren erabaki gehigarrietako lehenengoan eta Euskal Herriko Autonomia-Estatutuaren 10.5. atalean agintzen denaren arauera, honakook betez gero:

- Udalbatzarraren erabakia, aurkako baino aldeko botu gehiagoz.
- Bizkaiko Batzar Nagusien eritzia entzutea.
- Herritarrek onartzea, Udalak deitutako erreferendumean emandako botu baliodunen gehiengo aldeko izanda.
- Eusko Legebiltzarraren lege bidez onartzea.

2.- Asmo horrek aurrera egingo ez balu, bost urtegarrenera arte ezingo litzaioke berriro ekin.

## Artículo 11

Si a resultas de la voluntad expresada por sus vecinos, con los trámites del artículo anterior, este Fuero en su integridad pasa a regir en el territorio no aforado de una Villa, aquellos, por tal hecho, ganarán de inmediato la vecindad civil foral.

La nueva legislación que resulte aplicable de acuerdo con lo establecido en el artículo anterior no alterará el régimen económico de los matrimonios preexistentes, salvo que lo acuerden en capitulaciones matrimoniales.

En lo relativo a las relaciones personales y sucesorias se aplicará lo establecido en las disposiciones transitorias.

## SECCIÓN II

### ÁMBITO PERSONAL

#### Artículo 12

A los efectos de este Fuero Civil, son vizcaínos quienes tengan vecindad civil en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Aforado o Infanzón es quien tenga su vecindad civil en territorio aforado.

#### Artículo 13

Los vizcaínos no aforados podrán testar mancomunadamente y por comisario, con arreglo a las disposiciones de este Fuero.

#### Artículo 14

En los instrumentos públicos que otorguen los vizcaínos se hará constar su vecindad civil, su carácter de aforado o no, y, en su caso, el régimen de bienes por el que se rige su matrimonio, según resulte de sus manifestaciones.

A falta de manifestación, se entenderá, salvo prueba en contrario, que la vecindad civil del otorgante es la que corresponde al lugar de su nacimiento, y el régimen de bienes del matrimonio el legal en el lugar del último domicilio común de los cónyuges, y, a falta del mismo, el del lugar de celebración del matrimonio.

#### Artículo 15

Los actos y contratos regulados en este Fuero Civil podrán formalizarse en euskera.

Salvo lo dispuesto en la legislación lingüística vigente, cuando el acto o contrato se formalice ante Notario y éste no conociese el euskera, se precisará la intervención de un intérprete elegido por el otorgante que traduzca su disposición al castellano, redactándose el documento en ambas lenguas, conforme se establece en el Reglamento Notarial.

## CAPÍTULO II

### DE LOS CONFLICTOS DE LEYES

#### Artículo 16

A falta de normas especiales, los conflictos de leyes a que dé lugar la coexistencia, dentro de Bizkaia, de la diversidad de ordenamientos jurídicos, se resolverán de acuerdo con las normas de carácter general, según la naturaleza de las respectivas

Itzulpena: Eusko Legebiltzarra

## 11. Atala

Bertako herritarrek aurreko atalean zehaztutako urrats guztiekin agerturiko borondatearen ondorioz Foru hau oso-osorik ezartzen bada Hiri bateko lurralde forugabekoan, foru-herritasun zibila lortuko dute zuzen-zuzen.

Aurreko atalean agindutakoaren arauera ezargarri izan dadin legeria berriak ez du alda-eraziko ordura arteko ezkontzen ondasun-jaurpidea, ezkontza-hitzarmenetan horrela erabakitzen ez baldin badute behintzat.

Pertsonen arteko eta oinordetza-kontuko harremanetan, aldibaterako erabaketan agintzen dena ezarriko da.

## II SAILA

### PERTSONA-EREMUA

#### 12. Atala

Foru zibil honen ondorioetarako, Bizkaiko Lurraldeko herritasun zibila dutenak dira bizkaitarrak.

Foru-lurraldeko herritasun zibila duena da forudun edo infantzoia.

#### 13. Atala

Bizkaitar forugabekoek elkarrekin edo ermandadean edota eskuordeko bidez egin dezakete testamentua, Foru honetako aginduen esanera.

#### 14. Atala

Bizkaitarrek egin ditzaten Eskribau-agirietan euren herritasun zibila, forudun ala forugabeko diren eta, hala badagokie, zein ezkontza-jaurpide duten jaso beharko da, eurek adierazitakoaren arauera.

Agiria egin nahi duenak berak adierazten ez badu, eta bestelako frogarik ezean, jaio zen tokiari dagokion herritasun zibila duela ulertuko da eta, halaber, senar-emazteen ondasunen jaurpidea elkarrekin izan duten azkenengo bizilekuaren tokiari legez dagokiona dela, edo horrelakorik ez bada, ezkontza egin zen tokioa.

#### 15. Atala

Foru Zibil honek arautzen dituen ekintza eta hitzarmenak euskaraz egin daitezke.

Ekintza edo hitzarmenok Eskribau aurrean egin eta Eskribauak euskaraz ez badaki, eskritura egin nahi duenak aukeratutako itzultzaile bat beharko da, bere aginduak gaztelaniara itzul ditzan, eta agiria hizkuntza bietan idatziko da Eskribautza-araudiak ezartzen duen bezala, beti ere indarrean dagoen hizkuntzari buruzko legeriak besterik agintzen ez badu.

## II ATALBURUA

### LEGEEN GATAZKAK

#### 16. atala

Berariazko araurik ez balego, Bizkai barruan legebide desberdinak batera egoteak biztu ditzan lege-gatazkak arau orokorrak erabilia ebartziko liriteke, erakunde bakoitzaren izaeraren arauera.

instituciones.

Tendrán la vecindad vizcaína aforada los extranjeros que, en el momento de adquirir la nacionalidad española, tengan su vecindad administrativa en territorio aforado, salvo opción en contrario del interesado manifestada en el expediente de adquisición de nacionalidad.

## **TÍTULO II DE LA TRONCALIDAD**

### **Artículo 17**

1.- La propiedad de los bienes raíces es troncal. A través de la troncalidad se protege el carácter familiar del patrimonio.

2.- En virtud de la troncalidad, el titular de los bienes raíces solamente puede disponer de los mismos respetando los derechos de los parientes tronqueros.

3.- Los actos de disposición que vulneren los derechos de los parientes tronqueros podrán ser impugnados en la forma y con los efectos que se establecen en el presente Fuero Civil.

### **Artículo 18**

El parentesco troncal se determina siempre con relación a un bien raíz sito en el Infanzonado o Tierra Llana.

### **Artículo 19**

A efectos de la troncalidad, son bienes raíces la propiedad y demás derechos reales de disfrute que recaigan sobre:

1.- El suelo y todo lo que sobre el mismo se edifica, planta o siembra.

Los bienes muebles destinados o unidos a los expresados en el párrafo anterior tendrán la consideración de raíces, salvo que, pudiendo ser separados sin detrimento, se transmitan con independencia.

No están sujetos al principio de troncalidad los frutos pendientes y las plantas, cuando sean objeto de transmisión separada del suelo, ni los árboles, cuando se enajenen para su tala.

2.- Las sepulturas en las iglesias.

### **Artículo 20**

Son parientes tronqueros:

1.- En la línea descendente, los hijos y demás descendientes, incluso los adoptivos.

2.- En la ascendente, los ascendientes de la línea de donde proceda la raíz.

3.- También lo serán, sin perjuicio de la reserva que se establece en el artículo 85 de este Fuero, el padre o madre supervivientes respecto de los bienes comprados o ganados constante el matrimonio de aquellos y heredados del cónyuge premuerto por sus hijos comunes.

4.- En la colateral, los parientes que lo sean por la línea paterna o materna de donde proceda la raíz troncal.

El parentesco troncal para los hijos adoptivos se determinará, en las líneas ascendente y colateral,

Atzerritarrek bizkaitar forudunen herritasuna izango dute Espainiartasuna hartzerakoan lurralde forudunean administrazio-herritasuna badute, espainiartzeko espedienteen aurkako aukerarik adierazi ezean.

## **II IDAZPURUA TRONKALA**

### **17. Atala**

1.- Onibarren jabetza tronkalekoa da. Tronkalaren izate horrekin etxaguntza familia barruan gordetzen da.

2.- Tronkalaren indarrez, onibarren jabeak ezin ditzake onibarrok erabili trokaleko senideen eskubideak kontutan izan gabe.

3.- Tronkaleko senideen eskubideei kalte egin diezaieten erabilpen-ekintzen aurka egin daiteke, Foru Zibil honetan agindutako moduan eta bertan esandako ondorioekin.

### **18. Atala**

Tronkaleko senidetasuna Lur Lauean dagoen onibarrari begira zehaztuko da beti.

### **19. Atala**

Tronkalari begira, onibar dira hurrengoan gaineko jabetza zein gauzen gaineko bestelako gozamen-eskubideak:

1.- Lurra eta lur gainean eraiki, landatu edo ereindako edozer.

Aurreko lerroaldian aipatutakoei lotutako zein batutako ondasun mugikorak ere onibartzat joko dira, kalterik gabe banandu ahal izan eta banatuta eskualdatzen direnean izan ezik.

Eskuratu gabeko frutuak, lurrarekin batera eskualdatzen ez diren landarak eta ebakitzeko saltzen diren zuhaitzak ez dira tronkalekoak izango.

2.- Elizetako sepulturak.

### **20. Atala**

Honako hauek dira tronkaleko senide:

1.- Beherako belaun-lerroan, seme-alabak eta gainerantzeko ondorengoak, baita ordekoak ere.

2.- Gorakoan, tronkalaren jatorritik datorren belaun-lerroko aurrekoak.

3.- Baita bizirik dirauen aita edo ama ere, ezkontza bitartean erosi edo irabazitako eta bietako bat hildakoan bion seme-alabek jarauntsitako ondasunetarako, Foru honetako 85. atalean ezarten den gordekizunaren eragozpenik gabe.

4.- Alboko belaun-lerroan, onibarraren jatorritik datorren aitaren edo amaren belaun-lerroko senideak.

Seme zein alaba ordeentzako, tronkaleko senidetasuna seme-alabatzakoa guraso ordearen

como si el adoptado fuese hijo por naturaleza del adoptante.

#### **Artículo 21**

En la línea descendente, el parentesco troncal se prolonga sin limitación de grado.

En la ascendente, el parentesco troncal termina en el ascendiente que primero poseyó la raíz.

En la colateral, llega hasta el cuarto grado civil, inclusive, de consanguinidad.

#### **Artículo 22**

Tienen la consideración de troncales:

1.- Con relación a la línea descendente, todos los bienes raíces sitos en el Infanzonado, cualquiera que fuese el título de su adquisición, aunque hubiesen sido adquiridos de extraños.

2.- Con relación a las líneas ascendente y colateral, todos los bienes raíces sitos en el Infanzonado que hayan pertenecido al tronco común del sucesor y del causante de la sucesión, incluso los que éste último hubiese adquirido de extraños.

En su caso, las palabras "sucesor" y "causante" se sustituirán por las de "adquirente" y "transmitente" por actos "inter vivos".

3.- Los adquiridos por permuta u otro título oneroso que implique la subrogación de bienes troncales por otros radicantes en el Infanzonado o Tierra Llana.

#### **Artículo 23**

Los derechos y obligaciones derivados de la troncalidad corresponden, como vizcaínos, a todos los que tengan vecindad civil en Bizkaia.

Por esencia de la troncalidad, la pérdida de la vecindad vizcaína no supone restricción alguna en los derechos y deberes de cualquier naturaleza derivados de la misma.

#### **Artículo 24**

Los actos de disposición de bienes troncales realizados a título gratuito, "inter vivos" o "mortis causa", a favor de extraños o de parientes que no pertenezcan a la línea preferente de quien transmite, serán nulos de pleno derecho.

#### **Artículo 25**

Quienes no sean vizcaínos aforados gozarán de libertad para disponer, a título gratuito, de los bienes troncales en favor de cualquiera de los parientes tronqueros de línea preferente, pero el beneficiario de los mismos no podrá tener participación en los bienes no troncales, mientras con ellos no esté cubierta la legítima estricta de los demás legitimarios.

#### **Artículo 26**

La transmisión a título gratuito de un caserío con sus pertenecidos comprenderá, salvo disposición en contrario, el mobiliario, semovientes, maquinaria e instalaciones para su explotación existentes en el mismo.

### **TÍTULO III**

odoleko semea edo alaba balitz bezala zehaztuko da, gorako zein alboko belaun-lerroan.

#### **21. Atala**

Beherako belaun-lerroan, tronkaleko senidetasunak jarraitu egiten du belaunez-belaun, maila-mugarik gabe.

Gorakoan, tronkaleko senidetasuna jatorriko onibarra lehenengoz eduki zuen aurrekoan bukatzen da.

Alboko belaun-lerroan, odolkidetasuneko laugarren belaun-maila zibileraino iristen da, laugarren hori ere barruan dela.

#### **22. Atala**

Hurrengook dira tronkalekoak:

1.- Beherako belaun-lerroari dagokionez, Lur Lauean dauden onibar guztiak, edonola eskuratuak direla, kanpokoengandik eskuratuak izan arren.

2.- Gorako eta alboko belaun-lerroei dagokienez, Lur Lauean dauden eta oinordekoaren eta oinordetzaillearen oin berekoak diren onibar guztiak, oinordetzailleak kanpokoengandik eskuratuak barruan direla.

"Inter vivos" erako eskualdaketetan "oinordeko" eta "oinordetzaille" berben ordezkari "eskuratzaile" eta "eskualdatzaille" erabiliko dira.

3.- Tronkaleko ondasunen truke zein ordezkotzan hartzea eskatzen duen beste ordainbidezko bideren batez eskuratutako Lur Lauean dauden onibarrak.

#### **23. Atala**

Tronkaletik datozen eskubide eta betekizunak Bizkaiko herritar zibil guztiei dagozkie, bizkaitar direnez.

Tronkalaren beraren izaeragatik, bizkaitar-herritasuna galtzeak ez ditu ezertan murriztuko beraren indarrez izandako eskubide eta betekizunak.

#### **24. Atala**

Tronkaleko ondasunak kanpoko inori zein eskualdatzaillearen lehentasunezko belauneko ez den inolako senideri eskualdatzeko dohaineko ekintzak, "inter vivos" edo "mortis causa"zkoak, berez izango dira lege-baliogabeak.

#### **25. Atala**

Bizkaitar forudun ez direnek askatasuna dute tronkaleko ondasunak lehentasunezko belauneko tronkaleko edozeini dohain eskualdatzeko, baina hartzaileak ezingo du hartukizunik izan tronkaleko ez diren ondasunetan, ondasunokin gainontzeko senipartedunei euren legezko seniparte laburra eman arte.

#### **26. Atala**

Baserría gainerantzekoekin dohain eskualdatzerakoan, besterik esan ezean, altzariak, abereak, lanabesak eta ustiapen-ezarkinak sartuko dira.

### **III IDAZPURUA**

## DE LAS SUCESIONES .- DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 27

La designación de sucesor en bienes, sean o no troncales, tiene lugar por testamento, por ley, por pacto sucesorio, capitulaciones matrimoniales o escritura de donación.

### Artículo 28

La designación genérica "parientes tronqueros" se entiende referida a los parientes llamados a la sucesión "ab intestato" por la línea troncal correspondiente.

## CAPÍTULO I

### DE LA SUCESIÓN TESTADA

#### SECCIÓN I

##### DE LOS TESTAMENTOS EN GENERAL

### Artículo 29

Además de las formas de testar reguladas por la legislación civil general, se admite en el territorio aforado el testamento "hil-buruko".

### Artículo 30

En ningún testamento notarial otorgado en todo el territorio de Bizkaia será precisa la intervención de testigos, salvo que expresamente lo requieran el testador o el Notario autorizante.

#### SECCIÓN II

##### DEL TESTAMENTO "HIL-BURUKO"

### Artículo 31

El que se hallare en peligro inminente de muerte podrá otorgar testamento ante tres testigos, bien en forma escrita o de palabra.

Este testamento quedará ineficaz si pasaren dos meses desde que el testador haya salido del peligro de muerte. Cuando el testador falleciese en dicho plazo, también quedará ineficaz el testamento si no se adverase dentro de los tres meses siguientes al fallecimiento, en la forma prevenida por las leyes procesales.

En el caso de que, habiendo salido el testador del peligro de muerte, quedase incapacitado para otorgar un nuevo testamento, el plazo de adveración será de tres meses contados desde su otorgamiento.

Adverado judicialmente el testamento, se procederá a su protocolización notarial.

#### SECCIÓN III

##### DEL PODER TESTATORIO Y DEL TESTAMENTO POR COMISARIO

### Artículo 32

El testador puede encomendar a uno o varios comisarios la designación de sucesor, la distribución de los bienes y cuantas facultades le correspondan en orden a la transmisión sucesoria de los mismos.

### Artículo 33

El nombramiento de comisario habrá de hacerse en testamento ante Notario.

## OINORDETZAK ERABAKI OROKORRAK

### 27. Atala

Oinordekoa, tronkaleko ondasunak izan edo ez izan, testamentuz, legez, oinordetza-itunez, ezkontza-hitzarmenez zein dohaintza-eskrituraz izenda daiteke.

### 28. Atala

"Tronkaleko senideak" esaten denean besterik gabe, euri dagokien oinaren belaun-lerrotik testamenturik gabeko oinordetzara deituriko senideak direla ulertu behar da.

## I ATALBURUA

### TESTAMENTU BIDEZKO OINORDETZA

#### I SAILA

##### TESTAMENTUAK OROKORREAN

### 29. Atala

Legeria zibil orokorrean araututako testamentu-moduez gain, "hil-buruko" testamentua ere onartzen da lurralde forudunean.

### 30. Atala

Bizkaiko lurralde guztian Eskribau aurrean egindako ezein testamentutan ez da lekukorik behar izango, testamentu-egileak berak edo egiaztatzen duen Eskribauak horrela eskatzen ez badute behintzat.

#### II SAILA

##### "HIL BURUKO" TESTAMENTUA

### 31. Atala

Hil zorian dagoenak testamentua egin dezake hiru lekukoren aurrean, bai ahoz bai idatziz.

Testamentu hori indarrrik gabe geratuko da egilea hiltzeko arriskutik atera eta bi hilabetegarrenean. Testamentu-egile hori epe horren barruan hilez gero ere indarrrik gabe geratuko da testamentua, baldin heriotza osteko hiru hilabeteen barruan egiaztarazten ez bada, ihardunbide-legeek agintzen duten eran.

Testamentu-egilea hilteko arriskutik atera baina beste testamenturik egiteko ezgai geratuko balitz, egiaztarazteko epea hiru hilabetekoa izango litzateke, testamentua egin zenetik kontatzen hasita.

Testamentua epaile batek egiaztarazi ostean, Eskribau-liburuan jasoeraziko da.

#### III SAILA

##### TESTAMENTUA EGITEKO PODEREA ETA ESKUORDE-BIDEZKO TESTAMENTUA

### 32. Atala

Testamentu-egileak eskuordeko bati edo batzuri eman diezaieke oinordekoa izendatu eta ondasunak banatzeko ardura, eta ondasunon oinordetza-eskualdaketa dela eta, berari dagozkion beste ahalbide guztiak.

### 33. Atala

Eskuordekoa Eskribau aurrean egindako testamentu bidez izendatu behar da.

Los cónyuges, antes o después del matrimonio, podrán además nombrarse recíprocamente comisario en la escritura de capitulaciones o pacto sucesorio. A esta designación entre cónyuges se le denomina "alkar-poderoso".

#### **Artículo 34**

El comisario habrá de tener la capacidad necesaria para el acto a realizar al tiempo de ejercitar el poder testatorio.

El sucesor designado habrá de ser capaz para suceder en el momento de dicho ejercicio, o en la fecha del fallecimiento del causante. Quedarán a salvo las designaciones condicionales o fideicomisarias.

#### **Artículo 35**

El comisario desempeñará su cargo conforme a lo establecido expresamente por el comitente en el poder testatorio, y, en su defecto, tendrá las facultades que al causante corresponden según los preceptos de este Fuero.

#### **Artículo 36**

En todo caso, el comisario deberá realizar, en el plazo de seis meses desde que, fallecido el comitente, tenga conocimiento de su designación, un inventario de todos los bienes, derechos, cargas y obligaciones de la sucesión, de cuyo contenido deberá dar cuenta a los presuntos sucesores.

#### **Artículo 37**

El comisario no podrá revocar el testamento del comitente, en todo o en parte, a menos que éste le hubiere autorizado expresamente para ello.

#### **Artículo 38**

El comisario podrá adjudicarse a sí mismo los bienes que le pudiese haber atribuido por testamento el causante, así como aquellos que le corresponderían en el caso de sucesión intestada o a falta de ejercicio del poder testatorio.

Dichas adjudicaciones habrán de realizarse con sujeción a lo establecido en los artículos 62 y 64.

#### **Artículo 39**

El cargo de comisario es, en todo caso, voluntario y gratuito, y sus facultades, mancomunadas o solidarias, son personalísimas e intransferibles.

El comisario podrá designar albacea y contador-partidor de la herencia del comitente.

#### **Artículo 40**

Mientras no se defiera la sucesión y la herencia sea aceptada, será representante y administrador del caudal la persona que el testador hubiere designado en su testamento, con las facultades que le atribuya y las garantías que le imponga.

A falta de designación, representará y administrará la herencia el cónyuge viudo, y, en defecto de éste, el propio comisario.

#### **Artículo 41**

Senar-emazteek, ezkondu aurretik zein ezkondu ostean, elkar izenda dezakete eskuordeko ezkontza-hitzarmenean edo oinordetza-itunean. "alkar-poderosoa" deritzo senar-emazteen arteko izendapen horri.

#### **34. Atala**

Eskuordeko izendatutakoak behar den besteko gaitasuna izan beharko du testamentua egiteko poderea gauzatzeko orduan.

Oinordeko izendatutakoak jaraunsteko gai izan beharko du gauzatze horren orduan edo oinordetzailea hiltzen denean. Baldintzapeko zein fideikomiso-izendapenak kanpoan geratzen dira.

#### **35. Atala**

Eskuordekoak eskuordetzaileak poderea ematerakoan berariaz agindutakoari zehatz jarraituaz beteko du bere ardua eta, berariaz agindu gabekoetan, Foru honetako aginduen arauera oinordetzaileari dagozkion ahalmenak izango ditu.

#### **36. Atala**

Edonola ere, eskuordekoak oinordetzaren ondasun, eskubide, zor eta betekizun guztien zerrenda egin beharko du behin eskuordetzailea hil eta eskuordeko izendatu duela jakiten duenetik sei hilabeteko epe barruan, eta oinordeko ustezkoak zerrenda horrek dioenaren jakitun jarri beharko ditu.

#### **37. Atala**

Eskuordekoak ezin izango du eskuordetzailearen testamentua osorik edo bere zatirik ezereztu, horretarako baimena berariaz eman ez baldin badio behintzat.

#### **38. Atala**

Eskuordekoak, oinordetzaileak testamentu bidez eman diezaizkion ondasunak beretzat har ditzake, baita testamenturik gabeko oinordetzan edo testamentu-poderea gauzatu ezean legezkiokkeen ere.

Hartukizunok 62. eta 64. ataletan agindutakoei lotuta egin beharko dira.

#### **39. Atala**

Eskuordekoaren ardua borondatezkoa eta dohainekoa izango da beti eta dagozkion ahalmenak, amankomunekoak zein baterakoak egiteko izan, norberarenak eta eskualdaezinak dira.

Eskuordekoak eskuordetzailearen jaraunsiaren albacea eta kontulari-banatzzailea izenda ditzake.

#### **40. Atala**

Oinordetzara deitu eta jarauntsia onartu bitartean, testamentu-egileak testamentuan bertan izendatutako pertsona izango da jaraunsiaren ordezkari eta administratzaile, eman diezaizkion ahalmenekin eta ezarri diezaizkion erantzunbeharrekin.

